


Lehen Hezkuntzako Ebaluazioa 2004

Laburpen exekutiboa
Ondorioak eta hobetzeko proposamenak

2006ko apirila



ISEI·IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

www.isei-ivei.net



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO


HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Lehen Hezkuntzako Ebaluazioa 2004

Laburpen exekutiboa
Ondorioak eta hobetzeko proposamenak

2006ko apirila



ISEI•IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Argitaraldia: 2006ko ekaina

© ISEI•IVEI

ISEI•IVEIREN EDIZIOA

Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea

Asturias, 9 - 3. 48015 Bilbo

Tel.: 94 476 06 04 - Faxa: 94 476 37 84

info@isei-ivei.net - www.isei-ivei.net

KOORDINATZAILEA:

Francisco Luna

EUSKARA:

Arrate Egaña

MATEMATIKA:

Cristina Elorza

GAZTELANIA:

Trinidad Rubio

INGURUNEAREN EZAGUTZA:

Alfonso Caño

AHOLKULARITZA TEKNIKOA:

Eduardo Ubieta

José Luis Tranche

DISEINUA:

Onoff Imagen y Comunicación / www.eonoff.com

SARRERA	5
1. EMAITZA OROKORREN ONDORIOAK	11
2. CURRICULUMEKO ALDERDIEKIN LOTUTAKO ONDORIOAK	23
2.1. Euskara arloa	25
2.2. Gaztelania arloa	28
2.3. Matematika arloa	33
2.4. Ingurunearen Ezagutza arloa (curriculum komuna eta euskal curriculum)	36
3. IKASLEEN ETA IKASTETXEEN INGURUNEAREN EZAUGARRIAK ETA ONDORIOETAN DUTEN ERAGINA	49
4. GERUZEN EZAUGARRIAK ETA EMAITZAK	61
4.1. A eredu publikoa	64
4.2. B eredu publikoa	65
4.3. D eredu publikoa	66
4.4. A eredu itunpekoa	68
4.5. B eredu itunpekoa	69
4.6. D eredu itunpekoa	71
ERANSKINA	73

SARRERA

SARRERA

Lehen Hezkuntzaren ebaluazioak 1999an hasitako bideari jarraitu dio 2004an, baina oinarritzko bi urrats egin ditu aurrera: arlo gehiagotan egin da, eta, gainera, curriculumaren berezko alderdiari arreta berezia eman diogu; horrela, Euskadiko hezkuntza-sistemak etapa honetan duen egoera hobeto ezagut dezakegu. Helburuak honako hauek izan dira:

- Lehen Hezkuntzaren 6. mailako ikasleen jakintza-maila ezagutzea eta baloratzea, curriculum ofizialeko edukiei dagokienez, arlo hauetan: *Euskara, Gaztelania, Matematika eta Ingurune Natural eta Sozialaren Ezagutza*. Azken arlo horri dagokionez, bi proba egin dira: batean, autonomia erkidego guztietan ematen den curriculum hartu da kontuan (*curriculum komuna*), eta, bestean, Euskadiko eduki espezifikoak (*euskal curriculum*).
- Ebaluazio honen emaitzak 1999koekin alderatzea.
- Ezagutzea eta baloratzea ikasleen errendimenduan zer eragin duten hainbat faktorek: gizarte- eta familia-testu-inguruak, hezkuntza-prozesuek eta eskolaren inguruneak.

Ebaluazioaren esparru geografikoa Euskal Autonomia Erkidegoa izan da eta kontuan izan den populazioa 2003-2004 ikasturtean Lehen Hezkuntzaren 6. mailan matrikulatutako ikasleak izan dira. Hizkuntza-ereduak eta hezkuntza-sareak kontuan hartuta, proban parte hartu duten ikasle-kopuruak hurrengo taulan azaltzen dira; horretan, lagin ponderatuak azaltzen dira¹:

Lagin ponderatua	A eredia	B eredia	D eredia	Guztira
Sare publikoa	126	199	617	942
Sare itunpekoa	346	363	402	1.111
Guztira	472	562	1.019	2.053

Ebaluazioan zenbat taldek parte hartu duen, geruzaka:

	A eredia	B eredia	D eredia	Guztira
Sare publikoa	21	18	22	61
Sare itunpekoa	16	15	19	50
Guztira	37	33	41	111

(1) Ponderazioa egiteko, geruza bakoitzeko ikasle kopurua erlazionatu da proba egin duen ikasle kopuruarekin, ikastetxe bakoitzari balio bera emanez. Gero, ikastetxe bakoitzaren balioa bertako ikasle kopuruarekin zatitu da. Azkenik datuak egokitu dira, ikasleen zenbateko orokorra eta ponderatua lagineko bera izan dadin.

Informazioa biltzeko, tresna kuantitatiboak erabili dira -eskola-errendimendua neurtzeko probak- adituek diseinatuak eta landuak 2001-02 eta 2002-03 ikasturteetan. Beheko koadroan, ebaluatu den arlo bakoitzeko proben ezaugarriak eta egitura azaltzen dira:

ARLOAK	Koadernoen ezaugarriak
Ingurunearen Ezagutza (curriculum komuna) Egilea: ISEI-IVEI	<ul style="list-style-type: none"> • 4 koaderno: 40 galdera A-C-D koadernoetan eta 39 B koadernoan; horietatik 20 komunak ziren koaderno guztietan eta, gainerakoak, espezifikoak. Bai komunetan bai espezifikoetan, galdera irekiak zein itxiak zeuden.
Euskara eta Literatura Egilea: ISEI-IVEI	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Entzumena eta Diktaketa</i>: Bi koadernotan 9 galdera espezifiko itxi entzumena neurtzeko eta 20 galdera espezifiko ireki diktaketa egiteko. • <i>Ulermena eta Idazmena</i>: Lau koaderno, 3 alderdi ebaluatuz: <i>Idaziaren ulermena, idazmena eta hizkuntza-ezagutzak</i>. • <i>Ulermenean</i>, galdera guztiak itxiak ziren: 17 komunak koaderno guztietan, 11 espezifikoak A-C koadernoetan eta 10 espezifikoak B-D koadernoetan. • <i>Idazmenean</i>, 5 galdera komun eta ireki, 6 galdera espezifiko itxi A-C-D koadernoetan, eta 5 espezifiko itxi B koadernoan. • <i>Hizkuntza-ezagutzetan</i>, 6 galdera komun eta ireki, eta gainerakoak espezifikoak: 4 itxi eta 7 ireki A-B koadernoetan, eta 5 itxi C-D koadernoetan.
Matematika Egilea: COMUNIDADES-INECSE	<ul style="list-style-type: none"> • Lau koaderno: 44 galdera A-B koadernoetan eta 43 C-D koadernoetan; horietatik 24 komun lau koadernoetan, eta gainerako galderak bakoitzean espezifikoak. Galdera guztiak itxiak ziren, eta 4 erantzunen artean zuzena aukeratu behar zuten.
Ingurunearen Ezagutza (curriculum komuna) Egilea: COMUNIDADES-INECSE	<ul style="list-style-type: none"> • Lau koaderno: 43 galdera A-D koadernoetan eta 44 B-C koadernoetan; horietatik 24 4 koadernoetan berdinak, eta gainerakoak espezifikoak (A-D koadernoetan 19 eta B-C koadernoetan 20). Galdera guztiak itxiak ziren, eta 4 erantzunen artean zuzena aukeratu behar zuten.
Gaztelania eta Literatura Egilea: COMUNIDADES-INECSE	<ul style="list-style-type: none"> • Lau koaderno: A koadernoan 43 galdera, B koadernoan 44, eta C-D koadernoetan 45, horietatik 25 komunak lau koadernoetan, eta gainerakoak espezifikoak. Galdera espezifikoetako 3 irekiak ziren, eta 15 eta 17 artean galdera itxiak, aukera anitzekoak.
Proba orokorra Egilea: COMUNIDADES-INECSE	<ul style="list-style-type: none"> • Lau koaderno ziren, eta galdera irekien bitartez hiru arlo ebaluatu dira: <i>Gaztelania, Matematika eta Ingurunearen Ezagutza (curriculum komuna)</i>. • <i>Gaztelanian</i> diktaketa komun bat zegoen lau koadernoetan, eta, horretan, ortografia-akatsak neurtu dira (azentu-markak izan ezik), azentu-akatsak eta hitz-kopurua guztira. • <i>Ingurunearen Ezagutzan</i> 3 galdera espezifiko zeuden, koaderno bakoitzean desberdinak. • <i>Matematikan</i>, 2 problema desberdin zeuden koaderno bakoitzean.

Ikasleen, beren familiaren eta eskolaren testuinguruaz eta prozesu didaktikoez informazioa biltzeko asmoz, galdera-sorta hauek erabili ziren:

IKASLEARENTZAT	<ol style="list-style-type: none">1. Galdera-sorta orokorra.2. Arloko galdera-sorta: proba bakoitzean, errendimenduari buruzko koadernoaren bukaeran.
IKASTETXEARENTZAT	<ol style="list-style-type: none">3. Zuzendaritzaren galdera-sorta.4. Ikasketa-burutzako galdera-sorta, hezkuntza-premia bereziei eta hizkuntza-prozesuei buruz.5. Hirugarren zikloko koordinatzailearen galdera-sorta, irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuei buruz.6. Ebaluatu den taldeko tutorearen galdera-sorta, irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuei buruz.7. Tutorearen galdera-sorta IKTei buruz.
FAMILIENTZAT	<ol style="list-style-type: none">8. Proba egin duten ikasle guztien familientzako galdera-sorta.

Ebaluazio honetako emaitzak eta informazioa aztertu ondoren, zenbait ondorio eta gomendio aurkeztuko ditugu, lau alor handitan banatuta:

- *Maila orokorra*: ebaluazioaren emaitza orokorrak.
- *Curriculum maila*: arlo bakoitzean lortutako ezagutzei dagozkien indarguneak eta ahulguneak.
- *Egitura maila*: ikasleen eta ikastetxeen ingurune sozio-ekonomikoaren eta kulturalaren ezaugarriek emaitzetan duten eragina.
- *Laginen maila*: ebaluazio honetako geruzak kontuan hartuz.

EMAITZA OROKORREN ONDORIOAK

1

1. EMAITZA OROKORREN ONDORIOAK


*Besterik adierazten ez den bitartean, atal honetako emaitzak **IET puntuazioak** izango dira, 0 eta 500 arteko heina duen eskala, batezbesteko 250 eta desbideratze tipikoa 50 direla.*

1.1. 2004ko ebaluazioaren emaitza orokorrak 1999koak baino hobekak dira Gaztelanian; aldiz, Matematikan eta Ingurunearen Ezagutzan (curriculum komuna) ez dago alde esanguratsurik.

1999 eta 2004ko emaitzak konparatzea, ebaluatutako bost arloetatik hiritan bakarrik egin daiteke -Gaztelanian, Matematikan eta Ingurunearen Ezagutzan (curriculum komuna)-, Euskara eta Ingurunearen Ezagutza (euskal curriculum) ez baitziren aztertu 1999an.

Oro har, Gaztelanian bakarrik hobetu dira emaitzak era esanguratsuan (4,9 puntu gehiago); Matematikako emaitza 2,7 puntu hobetu den arren, aldea ez da esanguratsua. Antzekoa gertatzen da Ingurunearen Ezagutzan (curriculum komuna): aldea ez da esanguratsua, nahiz eta 2004an 1999an baino puntuazio txikiagoa lortu den..

1. grafikoa. 1999ko eta 2004ko ebaluazioen emaitzak (IET puntuazioa)



Txosten honen 4. atalean, arlo bakoitzak bi ebaluazioetan izandako emaitzak alderatzen dira geruzaka.


Gomendioa:

- Gaztelanian emaitzak hobetu izanak eta Ingurunearen Ezagutzan (curriculum komuna) puntuazio 1999koa baino txikiagoa izateak (aldea esanguratsurik ez den arren) zehaztu beharra dago arlo bakoitzean zein aspektu hobetu behar den hurrengo ebaluazioetarako. Txostenaren 2. atalean eta aztertutako gainerako ataletan, zenbait proposamen egiten dira.
- Gaztelanian emaitza onak dituzten alderdiak optimizatu behar dira, eta zenbait arazo eta gabezi konpontzen saiatu (hori guztia 2.2. atalean ageri da).

1.2. Ikasleen %80 eta 90 artean gutxieneko errendimendu-maila gainditzen dute arlo guztietan², baina gehienak tarteko mailan daude, eta oso gutxik lortzen dute maila gorena eta bikaina.

2. grafikoan ikus daitekeenez, lau probetan, ikasleen %70 inguru errendimenduaren erdiko mailan daude (200 eta 250 artean), eta %82 eta 90 artean dira gutxieneko maila gainditu dutenak.

2. grafikoa. Ikasleen banaketa, errendimendu-mailaren arabera



Emaitzak onak izan arren, badira bi alderdi hain positiboak ez direnak: batetik, ikasleen %10 eta 17 artean errendimendu-maila gorenean dago, baina maila bikaineko ikasle-kopurua oso txikia da (%0,5 Gaztelanian, %2 Matematikan, %1,6 euskal curriculumeako Ingurunearen Ezagutzan eta %0,3 baino ez arlo bereko curriculum komunean). Bestetik, hasierako etapa honen gaitasun minimoak eta oinarrikoak gainditzen ez dituen ikasle-kopurua nahiko handia da, batez ere Ingurunearen Ezagutzako bi probetan.

Gomendioa:

- *Proba bakoitzean ikasle batzuk oso maila baxuan edo gorenean daudenez, beharrezkoa izango litzateke aniztasuna indartzea irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuetan, ez baitirudi egoki denik, ez eta posible ere, ikaskuntza-tresna berdinak ematea hain desberdinak diren ikasleei. Besteak beste, neurri hauek har daitezke:*
 - Zailtasunak dituzten ikasleak goiz antzemateko sistemak sustatzea, banakako laguntza indartzeko.
 - Oinarriko ikaskuntzak lortzen ziurtatzeko, sendotze-neurriak eta baliabideak (prestakuntza, aholkularitza, ikas materialak, ordutegien antolaketa... aniztasunari arreta emateko).
 - Hurrengo etapan (DBHn) zailtasunak dituzten ikasleen ebaluazioa eta jarraipena egitea, bai eta banakako laguntzak ematea ere, porrotik balitz bideratzeko.

(2) Lehenago adierazi dugunez, ikasleen errendimendua jakiteko litema *Erantzuteko Teoria (IET)* erabili dugu, eta eskala bat sortu dugu, ikasle bakoitzaren errendimendua ordenatzeko. Eskala hori 0 eta 500 artekoa da, batezbestekoa 250, desbideratze tipikoa 50, eta erreferentziatzko zenbait puntu ditu (*errendimendu-mailak* adierazten dituztenak), batezbestekotik \pm bat eta lau desbideratze tipiko aldentzen direnak. 150, 200, 250, 300... Eskala honi esanahia emateko, erreferentziatzko puntu bakoitza lotu dugu eduki eta operazio kognitibo multzo batekin, puntuazio hori edo goragokoa duen ikasleak dakizkienak. Esate baterako, 300 mailan dagoen ikasleak baditu puntu horren eta behegarokoen gaitasunak.


- Errendimendu apaleko ikasleen faktore pertsonalak edo bestelako enbaketak diagnostikoa egiteko aukera.
- Gaitasun handiko edo bikaintasun-maila lor dezaketen ikasleak topatzea eta arreta eskaintzea.

• Ingurunearen Ezagutzari dagokionez, kezkarria da bi probetan egotea errendimendu apaleko ikasle ugari (%18,2 curriculum komunean, eta %16,3 euskal curriculumean). 2.4. atalean dator emaitza horien azterketa, eta egin daitezkeen ekintzen katalogoa.

1.3. Hizkuntza-ereduak eragin handia du Euskaran, eta errendimendu-mailetakoko ehunekoak oso desberdinak dira: D ereduko ikasleen ia %80k errendimendu-maila handia du³, A ereduko %70 inguruk mailarik apalena lortu du, eta B eredukoak tarteko mailan daude.

Euskaran eragin handiena duten aldagaien artean⁴ hizkuntza-eredua da esanguratsuen, are gehiago beste arloetan ikasleen indize sozio-ekonomikoa dena baino. Ondorioz, Euskarako errendimendu-mailaren grafikoa ezin da gainerako arloekin alderatu.

3. grafikoa. Euskaran errendimendu-mailaren araberako ikasleen ehunekoak, eredu bakoitzean



3. grafikoa ikus daitekeenez, eredu bakoitzak joera desberdina du:

- A ereduan dago errendimendu apaleko (150 eta 200) ikasle gehien (%68,6), eta oso gutxi dira maila gorena duten ikasleak;
- B ereduko ikasleen %82 tarteko mailan daude (250 eta 300), eta, gainera, maila bikaineko ikasleak beheko mailatan halako bi baino gehiago dira.
- D ereduko ikasleen %80k goiko maila eta maila bikaina du (300 eta 350), eta maila apaleko ikasleak oso-oso urriak dira.

(3) Probak 2004ko ebaluaziorako egin ziren, eta artean ez zen sortu Lehen Hezkuntzako, Hizkuntzen Europar Markoan oinarritua.

(4) Euskarako probaren bidez curriculumeko edukien lorpen-maila jakiteaz eta baloratzeaz gain, jakin nahi zen A ereduko ikasleak euskaraz zertarako gai diren; horretarako, koardenoetan zenbait item gehitu ziren helburu hori lortzeko.

1.4. 1999ko eta 2004ko ebaluazioetan geruza bakoitzak izandako emaitzak alderatuz, D eredu itunpekoa era esanguratsuki hobetu da hiru arloetan, eta gainerako geruzetan ez dago desberdintasun esanguratsurik.

Geruza bakoitzak 1999tik 2004ra ez dago desberdintasun esanguratsurik: Aipagarriena da D eredu itunpekoak emaitzak hobekitu dituela arlo guztietan, B eredu publikoak Matematikan, eta A eredu itunpekoak behera egin duela Ingurunearen Ezagutzan (curriculum komuna).

Aurreko datu hori da, zalantzarik gabe, ondorioz garrantzitsua, baina aipatzekoa da, baita ere, Ingurunearen Ezagutzan (curriculum komuna), sei geruzatik bostek 1999an baino emaitza txarragoak lortu dituztela, eta antzekoa gertatzen da Matematikan hiru geruzetan: A eredu publikoan eta itunpekoan, eta D eredu publikoan.

Gomendia:

- *Txosten honen 2. atalean proposatzen dira zenbait ekintza eta proposamen espezifiko arlo bakoitzerako, eta 4. atalean, berriz, geruza bakoitzaren deskribapena dator.*

1.5. Ebaluatutako bi hizkuntza-arloetan, eredu bakoitzeko ikasleen emaitzetatik ondorioztatzen denez, gaur egun dagoen eredu bidezko antolaketak ez du bermatzen ikasle guztiek hizkuntza-gaitasun komun eta oinarritzko batzuk eskuratuko dituztenik euskararen eta gaztelanian, gure hezkuntza-sistemak duen ikuspegi muinbakarraren arabera.

Soilik B ereduak eta, nabarmenago, D ereduak gainditzen dute **Euskara arloko** batezbesteko puntuazioa⁵ (250); A ereduko bi sareetako ikasle gehienek, berriz, IET eskalako 1. eta 2. errendimendu-maila lortzen dute (ikus 3. grafikoa) eta, beraz, ez dira iristen egungo hezkuntza-legeek Lehen Hezkuntzaren bukaerarako ezartzen duten euskararen gaitasun-mailara.

Gaztelania arloari dagokionez, A ereduko ikasleen artean, sare kontzertatukoek baino ez dute gainditu batez bestekoa, eta, gainera, puntuazio altuena lortu dute; A eredu publikoek, ordea, geruza guztien artean emaitza apalena ateratu dute. B eta D ereduen bi sareetako ikasleek gainditu dute edo hurbiltzen dira batez besteko puntuaziora, eta, beraz, hizkuntza-murgiltze osoan ere ikasleek badituzte oinarritzko hizkuntza-gaitasun gehienak, Dekretuan aipatuak.

Bi hizkuntzen arteko emaitzen desorekak erakusten duenez, hizkuntza-ereduen gaur egungo egiturak ez dituzte bermatzen ikasleek hasierako etapa honetarako bi hizkuntzetan lortu behar dituzten gaitasun komun eta oinarritzkoak, eta, beraz, sistemak bere izaera muinbakarra galtzen du, bereziki euskara-gaitasunei dagokionez.

(5) Euskarako proban, curriculum ofiziala kontuan hartuta, idatzizkoaren espresioa eta ulermena eta ahozkoaren ulermena neurtu da, bai eta hizkuntza-ezagutzak eta hizkuntzari buruz gogoeta egiteko gaitasuna ere; horretarako item irekiak, erdi-irekiak eta aukera anitzekoak erabiliz.

Gomendioa:

- *Une honetan, egungo hizkuntza-ereduen egitura eta ezaugarriak aztertzeko eta berrantolatzeko prozesua dago martxan, ikasleek oinarriko trebetasunak garatzeko aukera izan dezaten, eta, hasierako etapa honetan eskatzen den moduan, bi hizkuntza ofizialetan gauzak egin ahal izan ditzaten. Ebaluazio honen emaitzek egitura eta antolaketa aldatu beharra dagoela adierazten digute, berriro ere.*

1.6. Familiako hizkuntza nagusia eta probaren hizkuntza berdinak ez direnean, ikasleen emaitzak esanguratsuki apalagoak dira familiako hizkuntzan erantzuten dutenean baino.

Egiaztaturik dago (ikus probaren hizkuntzari buruzko ikerketa) bigarren hizkuntza ikasten ari diren ikasleek ez dutela jatorriko hiztun baten hizkuntza-maila, eta, jakina, horrek eragina du bigarren hizkuntzan egindako proben errendimenduan.

2004ko hizkuntza-alderdien azterketan, bi osagai interesgarri azaldu dira:

- Batetik, *proban erabilitako hizkuntza*: luzetarako konparazioak egin ahal izateko, 2004an 1999ko baldintza berak ezarri ziren: A eta B ereduko ikasleek probak gaztelaniaz egin zituzten, eta D ereduko ikasleek euskaraz (hizkuntzen arloetan izan ezik, noski).
- Bestetik, ikasleen *familiako hizkuntza nagusia*⁷ beste ebaluazio batzuetako ondorioengatik (PISA, TIMSS, B2...) dakigu familiako hizkuntzak emaitzetan duen eragina, probako hizkuntza bera ez denean. Horregatik, D ereduko ikasleen kasuan⁸, familiako hizkuntza nagusiari buruzko informazioa jaso zen, beharrezko azterketak egin ahal izateko.


4. grafikoan, ikasleek arlo bakoitzean lortutako emaitza orokorrak ikus daitezke, ikasleen familiako hizkuntza kontuan hartuta (Euskara/Euskararik ez), eta geziz adierazten da zein taldek dituen emaitzarik onenak

(6) www.isei-ivei.net/cast/pub/influencialenguacast.pdf.

(7) Familiako hizkuntza nagusia esaten zaio aitak, amak eta ikasleak hitz egiten dutenari, eta, gainera, familian beti edo ia beti erabiltzen denari.

(8) 2004ko laginaren arabera, D ereduko ikasleen %52,2k du euskara familiako hizkuntza, B eredukoak %8,6k eta A eredukoak %2,5ek; oso gutxi dira familiako hizkuntza euskara edo gaztelania ez dutenak, eta batez ere A ereduan daude.

4. grafikoa. Arloetako emaitzak, familiako hizkuntzaren arabera (diferentzia esanguratsuak azalduz)




- **Familiako hizkuntza euskara duten ikasleen** emaitzak batezbestekoaren berdinak edo hortik gora daude arlo guztietan, Gaztelanian izan ezik, non, hala ere, oso gertu dauden batezbestekotik. Nabarmena da zeinen erraz gainditzen duten batez bestekoa Euskararen eta Ingurunearen Ezagutzan (euskal curriculum). Ikasle horiek, gainera, familiako hizkuntza gaztelania duten ikasleek baino emaitza esanguratsuki hobek ateratzen dituzte bost probetatik hirutan: Euskara, Matematika eta euskal curriculumeko Ingurunearen Ezagutza probetan.
- **Familiako hizkuntza gaztelania duten ikasleen** emaitzak batez bestekoak dira Matematikan, eta gainditu egiten dute Gaztelanian eta curriculum komuneko Ingurunearen Ezagutzan; baina batez bestekotik behera daude euskal curriculumeko Ingurunearen Ezagutzan, eta, batez ere, Euskararen. Gainera, ikasle horiek familia euskalduneko ikasleei Gaztelanian baino ez diete aurre hartzen.

Familiako hizkuntzari buruzko azterketa hau D eredu ikasleen kasuan da batez ere interesgarria; izan ere, ikasle horien ia erdiak eskolako hizkuntzan egin behar izan zituen probak, eta ez familiako hizkuntzan. 5. grafikoa 4. grafikoa oinarritzen da, baina lerro urdin bat gehitu zaio, D eredu ikasle gaztelania-hiztunek ateratako emaitzekin, eta lerro ez-jarraitua, proba bakoitzaren batezbestekoa adierazteko, horrela, ginetik edo azpitik zein dagoen ikusi ahal izateko.

5. grafikoa azterketatik, zenbait ondorio atera ditzakegu:

- **Familiako hizkuntza euskara ez duten D eredu ikasleek** familia euskaldunetako ikasleek baino puntuazio apalagoak lortu dituzte, eta, gainera, gaztelania-hiztunek baino emaitza baxuagoak dituzte Matematikan, Gaztelanian eta curriculum komuneko Ingurunearen Ezagutzan.
- Ikasle horien emaitzak apalagoak izan dira, edozein kasutan ere, ofizial diren bi hizkuntzetako batean proba egin duten ikasleek baino. Esate baterako, curriculum komuneko Ingurunearen Ezagutza proba gaztelaniaz egin dutenek 246,6 puntu lortu dituzte, euskaraz egin dutenek 242,7, D eredu gaztelania-hiztunek 244,1, eta berdin gertatzen da hizkuntzakoak ez diren arloetan ere.

5. grafikoa. Emaitzen konparazioa, familiako hizkuntza kontuan hartuta



– Nonbait, familiako hizkuntza eta probakoa bera ez izateak eragina izan du emaitzetan. Beraz, agian aparteko plusa jaso lukete puntuazioan, baldin eta probak gaztelaniaz —familiako hizkuntzan— egin balituzte. Kontuan izan behar da ebaluazio honetako zenbait ikasle hizkuntza-gaitasunak eskuratzeko erdi bidean daudela.

– Azkenik, ofizial diren bi hizkuntzek gizartean duten presentzia desberdina denez, familiako hizkuntza euskara duten ikasleek gaztelania hobeto menderatzen dute familia gaztelania-hiztunek euskara baino⁹.

Gomendioak:


- Familiako hizkuntza nagusia gaztelania duten ikasleek, murgiltze osoan ikasi arren, aparteko laguntza behar dute euskararen erabileran, etaparen oinarritzko gaitasunak modu orekatuan eskuratzeko.
- Familiako hizkuntza meneratzailea euskara duten eta ingurune euskaldunean bizi diren ikasleek Gaztelanian duten egoera eta gaitasunak aztertu beharra dago sakontasunez eta berariazko ikerketa batean.
- Beste ebaluazio batzuetan, batez ere nazioartekoetan, familiako hizkuntza nagusian egin da proba, eta hori beti positiboa izan da; izan ere, probako hizkuntzak ez du desberdintasunik ezarri ikasleen artean. Beraz, erabaki horren garrantziaz ohartu behar dugu, eta ikasleek proba zein hizkuntzatan egin erabakitzerakoan, kontuan hartu behar dugu zer neurtu nahi den eta zeintzuk diren ebaluazioaren helburuak.

(9) Gaztelaniarekin lotuta, egindako azterketan ikusten denez, familia euskalduneko ikasleak dituzten eta ingurune euskaldunean dauden zenbait ikastetxek emaitza apalagoak dituzte, halako ezaugarriak eduki ez baina eredu berekoak diren beste ikastetxe batzuek baino. Hala eta guztiz ere, ondorio hori ezin da orokortu, halakorik betetzen ez den antzeko edo gertuko beste egoera batzuk ere egiaztatu baitira.

1.7. Nesken errendimendua mutilena baino hobea da hizkuntzetan, eta mutilek puntuazio esanguratsuki handiagoak dituzte eremu zientifiko-matematikoan.

Ikasleen sexuaren arabera emaitzak 6. grafikoan jaso dira, eta beste ebaluazio eta etapa batzuetako emaitzen aldeari eutsi diote: Neskek emaitza esanguratsuki hobek dituzte hizkuntzetan, mutilek hobek dute esparru zientifiko-matematikoan, baina Ingurunearen Ezagutzan (euskal curriculum) ez dago desberdintasunik. Lerro etenen bitartez proba bakoitzaren batezbesteko puntuazioak adierazten dira, eta geziek, berriz, bi taldeen arteko puntuazioziorik onenak.

6. grafikoa. Sexuen arabera, proba bakoitzeko emaitzak (IET puntuazioa)



Gomendioak:

- Neskei Matematikan eta Ingurunearen Ezagutzan (curriculum komuna) laguntza berezia ematea komeniko litzateke, adibidez honela:
 - Matematika: lau blokeetatik hirutan izan dituzte emaitza okerragoak, eta horietan arreta jartzea, gainera oinarrizkoak baitira (Zenbakiak eta eragiketak, Geometria eta, batez ere, Magnitude-neurketa). Horrez gain, problemen ebazpena eta matematikako prozeduren eta estrategien erabilera lantzea. Ingurunearen Ezagutza (curriculum komuna): hamar blokeetatik hirutan izan dituzte emaitza okerragoak, eta horietan arreta jartzea. Alde zientifiko-enarekin dute lotura: Bizidunak, Makinak eta aparailuak eta Materialak eta propietateak. Arloko ezagutzak hainbat egoeratan aplikatzeko zailtasun handiagoa dute.
 - Beste ebaluazio batzuen arabera, eragina dute neskek arlo horiekiko duten autokontzeptuak, interesak, motibazioak eta gizarte-espektatibek. Alderdi horiek kontuan hartzea ezinbestekoa da, bai eta neskekin lan egitea ere egoera aldatu ahal izateko.

- *Mutilek hizkuntzetan oinarrizko trebetasunak eskuratzeko arreta berezia jartzea komeniko litzateke, honako ekintza hauen bitartez:*
 - *Idatzizko ulermena eta batez ere idazmena lantzea, bi trebetasun horietan baitituzte emaitza apalenak.*
 - *Aztartzea zer eragin duten autokontzeptuak, hizkuntza-trebetasunekiko interesak, eta, agian, generoarekin lotutako gizarte-baldintzek.*

CURRICULUMEKO ALDERDIEKIN
LOTUTAKO ONDORIOAK

2

2. CURRICULUMEN ALDERDIEKIN LOTUTAKO ONDORIOAK

Ondoren, arlo bakoitzean ebaluatu diren curriculum alderdi esanguratsuenei buruzko zenbait ondorio aurkeztuko ditugu. Salbuespenetan izan ezik, emaitza orokorretan oinarritzen dira, eta ez geruza bakoitzekoetan (hauek 4. atalean lantzen dira modu espezifikoan).


Hizkuntzen arloan, trebetasun bakoitzaren emaitzak aztertu dira, eta oinarritzko beste eduki batzuk: esaterako, testuen tipologia edo ortografia. Gainerako arloetan ondorioak ebaluatu ditugun eduki-blokeei eta operazio kognitiboiei dagozkie; izan ere, beste curriculum alderdi batzuei buruz —adibidez, zehar lerroak— ondorioak ere atera ditugu.

Atal honetako emaitza guztiak zuzen asmatuen ehunekoak dira, besterik adierazten ez bada.

2.1. EUSKARA ARLOA

Euskarako trebetasun bakoitzaren ehuneko zuzenak 7. grafikoan daude.

7. grafikoa. Hizkuntza-trebetasunen emaitzak. Euskara



Horrela, azter ditzagun ondorio garrantzitsuenak.

2.1.1. Entzumenean, ikasleek batezbestekotik gorako emaitzak atera dituzte, baina kontuan izan galdera gutxi izan direla.

Trebetasun honen puntuazio orokorra batezbestekotik gora dago, eta, puntuaziorik onena da *Hizkuntzaren ezagutza* atzetik. Trebetasun hau neurtzeko, irakurgai-mota berdinak hartu dira kontuan, baina galderak gutxi zirenez ez da ondoriorik azalduko.

Gomendioak:

- *Trebetasun honi garrantzi handiagoa eman behar litzaioke hurrengo ebaluazioetan, galdera gehiago eginez, izan ere, komunikazio-gaitasunaren oinarrietako bat da, gainerako trebetasunak bezala. Horrela datu gehiago lortuko lirateke, eta, beraz, gogoeta seguruagoa eta aberatsagoa.*
- *Ez ahaztu, halaber, ahozkoaren ulermena ere besteak bezain garrantzitsua dela, eta ahalik eta erarik komunikatiboenan landu behar dela ikasgelan.*

2.1.2. Irakurtzean, ikasleek erraz jaso dute testuaren alderdi formalei buruzko informazioa, baina zaila egin zaie testuan azaltzen denari buruz gogoeta egitea.

Ikasleak gai dira, hein handi batean, alderdi formalak edo testuaren forma ezagutzeko (erregistroak, testu-motak, ideien antolaketa...). Zailtasun handiagoa izan dute testua ulertzeko, batez ere testuko edukiei buruz gogoeta egiteko. Horrek esan nahi du ez dakitela munduaz behar hainbat testuari aplikatzeko, edo, baldin badakite, ez direla gai testuari aplikatzen.

Bestalde, batezbestekotik gertu ibili dira ulermen orokorrean eta informazioaren aukeraketan eta interpretazioan.

Beraz, esan daiteke ikasleak hobeto moldatzen direla alderdi teknikoetan eta teorikoetan, prozedurazkoetan baino.

Gomendioak:

- *Irakasleek irakurtzeko gaitasun orokorraren gaineko prestakuntza jaso beharko zuten eta irakurmeneko mailetan sakontzea ere. Prestakuntza hori laguntza zerbitzuen bidez antola liteke.*
- *Testua modu mekanikoan landu beharrean, testuak sakonago ulertzeko beste jarduera mota batzuk egin daitezke. Horrela, ikasleek antzemango lukete edo aterako lukete testuan dagoen informazioa, edo testuan ematen ez dena, testuak iradokitzen duena, etab. Ulermen-mota honetan, beharrezkoa da irakurtzeko eta ulertzeko prozesuaren urratsak ezagutzea.*

2.1.3. Ikasleek ondo ulertzen eta lantzen dituzte testu ikonikoak eta azalpenezkoak, baina arazo gehiago izan dituzte testu narratiboekin eta instrukturiboekin.

Irakurtzeko gaitasunarekin jarraituz, ikonikoak egin zaizkie errazena. Gaur egun oso ohikoa da bizitzaren edozein tesuingurutan irudidun testuak aurkitzea, eta, hortaz, ikasleak segur aski ohituta daude horiekin.

Beste hiru testu-motak batezbestekotik gertu geratu dira. Hiruren artean, azalpenezko testua da emaitza onenak lortu dituen, agian testu-mota hori ikasgelan askotan lantzen delako.

Emaitzarik apalenak testu narratiboan lortu dira, nahiz eta, itxuraz, dezente lantzen diren ikastetxeetan. Testu instrukturiboa ere nahiko zaila egin zaie.

Gomendioa:

- *Testu-mota guztiez eta horiek lantzeko moduz informazioa biltzeko gomendatzen zaie irakasleei. Zehazki, testu narratiboen eta instruktiboen ulermena sakonago landu beharko litzateke.*

2.1.4. Idazmenean emaitza eskasak lortu dira, bereziki lexikoan, kohesioan eta sintaxian; zuzentasunean eta koherentzian, aitzitik, emaitzak zertxobait hobeak izan dira.

Euskara arloan ebaluatutako gaitasun guztien artean, Idazmenak ditu emaitza eskasak. Idazmenaren barruan, puntuazio altuena koherentziak lortu du, eta, hortaz, esan daiteke ikasleek testuan ideiak ongi antolatzen eta garatzen dituztela. Horren ondoren zuzentasuna dator: nonbait, gramatika eta ortografia zuzena ez dira arazo handiena ikasleek idazten dutenean.

Bestalde, emaitza apalenak lexikoan eta testuen kohesioan atera dira, eta, beraz, idazterakoan ikasleek arazoak dituzte bai lexikoan -desegokia edo pobrea izan daiteke- bai perpausak egituratzerakoan —perpausak elkartzeko modua, loturen erabilera egokia, etab.— Azken batean, esan bezala, kohesioarekin eta sintaxiarekin lotutako arazoak agertzen dira.

Gomendioa:

- *Idazmenak duen garrantzia kontuan hartuta, nabarmena da hobetu beharra dagoela. Horretarako, Idazmena modu sistematikoagoan lantzea proposatzen da. Ikasleek testu-mota desberdinak idazten hobeak izan beharko lukete; prozesu horrek teorikoa baino gehiago prozedurazkoa eta praktikoa izan beharko luke. Horretarako, irakasleek aukera eduki beharko lukete alor horretan espezializatzeko, adibidez, prestakuntza egokiaren bidez.*

2.1.5. Hizkuntzaren ezagutzari dagokionez, emaitza onenak perpausaren eta gramatikaren mailan izan dira; apalagoak izan dira hitzaren eta testuaren mailetan.

Emaitza onenak perpausaren eta gramatikaren mailan izan dira; eskasagoak izan dira hitzarekin eta testuarekin lotutako ezagupen mailetan.

Gomendioa:

- *Atal honetan egin daitekeen proposamena aurrekoekin bat dator: testua gehiago landu behar da. Perpausari eta gramatikari dagokionez emaitzak onak baldin badira, hitzaren eta lexikoaren alderdietan jarri beharko genuke arreta.*


2.1.6. Ikasleek ez dute arazorik, oro har, ortografiarekin: emaitza onak lortu dituzte.

Ortografian emaitzak onak izan dira, eta akats gutxi egon dira diktaketetan. Errazen egin dituzten letrak honako hauek izan dira: K, Z eta TX; akats gehien izan dituenak: S. Emaitzak ikusita, gai hau egoki lantzen da.

2.2. GAZTELANIA ARLOA

Gaztelaniako trebetasun bakoitzaren ehuneko zuzenak 8. grafikoa jaso dira.

8. grafikoa. Hizkuntza-trebetasunen emaitzak. Gaztelania



Emaitza horietan eta beste azterketa osagarri batzuetan oinarrituta, funtsezko ondorioak honako hauek dira:

2.2.1. Ikasleek testuen ulermen orokor ona dute eta gai dira alderdi zehatzak edo literalak antzemateko, baina zailagoa egiten zaizkie ideiak laburtzea, testuak sailkatzea, ondorioak eta interpretazioak egitea eta testuaren harreman logikoak aurkitzea.

Emaitzetan ikusten denez, ikastetxeetan idatzizko testuen ulermen orokorra lantzen da, bai eta ulermen literala edo testuen informazio zehatzak bereiztea -batez ere narratiboetan-; baina ulermenaren beste alderdi batzuetan emaitzak apalagoak dira, eta, hortaz, esan daiteke ikaslea ez dela gai testuko informazioa interpretatzeko eta inferentziak egiteko, ezta edukiaz gogoeta egiteko ere testutik kanpoko ezagutzak kontuan hartuz, edo alderdi formalek mezuan edo egituran duten eraginaz gogoeta egiteko.

Eskolaren oinarriko maila hauetan, ez da aski ulermen orokorra lortzea edo testuetako ideia nagusiak antzematea: ikasleek gai izan behar dute idatzizko testuen maila konplexuagoak ulertzeko, eta dakitenaren arabera, adinaren arabera eta beren inguruko mundua ulertuz testuak aztertzeke.

Gomendioak:

- *Irakurmena lantzeko mota askotako jarduerak izan behar dituzte: ulermen orokorra lantzeaz gain, arreta jarri behar da osagaien arteko harremanetan (harremanak espazioan eta denboran, sekuentzia logikoak eta hizkuntzakoak diren eta ez diren osagaien arteko harremana).*
- *Ikasleak testuaren esanahi literalaz haratago ulertu behar du, eta edukiko elementuei buruz ondorioak eta inferentziak egin.*
- *Bestalde, dirudienez, ulermenaren programazioa hobetu beharra dago prestakuntza-prozesuen bidez, ereduak eta materialak erabiliz, era progresiboan eta jarduera desberdinen bidez, Lehen Hezkuntzan zehar.*

2.2.2. Ahozko testuen ulermenean, ikasleek batezbestekoa baino emaitza apalagoak lortu dituzte.

Ahozkoaren ulermenean lortutako emaitzak baxuenak izan dira ebaluatu diren gainerako hizkuntza gaitasunekin alderatuta. Dударik gabe, hori kezagarria da. Dena dela, ahozkoaren ulermena neurtzeko, dibulgaziozko testu bat eta lau galdera besterik ez zituen probak, eta, beraz, agian gure datuak ez dira aski baieztapen biribilak egiteko.

Gomendioak:

- *Ahozkoaren ulermenak lehentasuna eduki behar luke Lehen Hezkuntzako curriculumaren ziklo guztietan, eta, gainera, irakasleen prestakuntza-plan guztietan hartu behar litzateke kontuan (ikastaroak, ikastetxeko proiektuak, berrikuntza-proiektuak...).*
- *Ezinbestekoa izango litzateke hurrengo ebaluazioetan testu luzeagoak eta item gehiago jartzea, ahozkoaren ulermena ebaluatzeko 2004an baino informazio gehiago eskuratu ahal izan dezagun.*

2.2.3. Ikasleak gai dira testu berbo-ikonikoak eta informatiboak ulertzeko, baina zailtasunak dituzte literatura-testuak ulertzeko.

Curriculumaren Garatzeko Dekretuaren ardatz nagusietako bat testuak lantzea da, eta, gainera, testua da azterketak egiteko oinarritzko unitatea, eta komunikazio-eginkizunen ardatza. Bertan esaten denez, testu-mota bakoitzak bere egitura- eta hizkuntza-eskakizunak ditu, eta ikasleak horietaz ohartu behar du, trebetasun horiek erabiliz testu desberdinak ulertzeko eta erabiltzeko.

Ebaluazio honetan hiru testu mota proposatu ziren: literarioak, informatiboak eta berbo-ikonikoak. Emaitzarik apaleak testu literarioetan izan dira, batez ere deskribapenak azaltzen zirenean. Hori oso deigarria da, testu-mota hori sarritan agertzen baita curriculumean eta gehien erabiltzen diren materialetan.

Bestalde, testu informatiboak direnean (albisteak, instrukzioak eta dibulgaziozkoak) ikaslearen gaitasuna handiagoa da literarioetan baino; horrela, haiekin aritzeko gai da, batez ere instrukzio-testuekin. Hori zentzuzkoa da, testu mota hau maiz lantzen baita ikasgelan, eta, gainera, arlo guztietako testu-liburuek testu-mota hori erabiltzen baitute, eta, beraz, ikasleak ohituta daude horiek irakurtzen eta ikasten.

Ikasleek ongi menderatzen dituzte testu berbo-ikonikoak (binetak, iragarkia, komikia eta planoak), eta horretan ager-tu dira emaitzarik onenak. Dena dela, ez dituzte behar bezala erabiltzen eta interpretatzen ezaugarri berbo-ikonikoak dituzten planoak.

Gomendioak:

- *Gaztelania arloaren Dekretuan proposatutako testu-motak mailaka eta aurrerakorrez lantzeko prozesuak indar-tzea.*
- *Testu-motarik erabilienak lantzea eta beren ezaugarriak ezagutzea, egitura kontuan hartuz: hasiera, garapena eta itxiera, zehaztapen guztiekin.*
- *Batik bat literatur testuak lantzea; batetik zentzu estetikoa, sormena eta sen kritikoa garatzen direlako, eta, beste-tik, irakurtzeko ohitura garatzen dutelako, nola eskolan hala kanpoan. Ildo horretatik, aurrerago aipatuko dugun moduan, badirudi harremana dagoela irakurketaren eta arlo honetako emaitzen artean.*
- *Azkenik, gehiago landu behar diren testuak dira orientazio espaziala eskatzen dutenak, planoak, mapak... Gaztela-niaren arloan eta Ingurunearen Ezagutzaren arloarekin batera.*

2.2.4. Ikasleak ongi menderatzen du idazmen itxia –silabaz, hitzaz edo esaldiaz dakiena erabili behar duenean–, baina idazki irekiak egiteko gaitasuna apalago garatu du.

Idazmenaz item itxien bidez -silabari, hitzari, esaldiari eta testuari buruz- ebaluatu da eta emaitzak hobeak izan dira probaren batezbestekoan baino; horrek esan nahi du ikasleak ezagutzen dituela esaldiaren zatiak eta testuak, eta horiei buruzko ariketa solteak egin ditzakeela.

Nolanahi ere, emandako egoera batean eta testuaren parametro jakin batzuk betez idatzi beharra duenean, bere maila kaskar samarra da eta eskas menderatzen ditu idazketaren prozedurak eta testuaren parteak: kohesioa, egokitasuna, koherentzia eta hiztegi aproposa.

Gomendioak:

- *Prestakuntza-prozesuak eta materialak eta baliabideak sortzea bultzatu behar dira, irakasleei laguntzeko idazmena lantzeko proposamenak programatzen, sekuentziazten eta gauzatzen.*
- *Ikasleekin ariketak egitea koherentzia- eta kohesio-prozedurak ikasteko, eta baita testuko ideiak ordenatzen eta sail-katzen ikasteko ere. Gainera, hiztegiaren zehaztasuna landu beharko litzateke, testu eta egoera bakoitzerako ego-kia dena, etengabe hiztegi generikoa erabili gabe.*

2.2.5. Gutxi irakurtzeak eragin txarra du emaitzetan.

Irakurtzea gustatzen ez eta irakurtzen denbora gutxi pasatzen duten ikasleek baino emaitza hobeak dituzte gehiago irakurtzen dutenek, edo irakurtzea gehiago gustatzen zaienek.

Gomendioak:

- *Jarduerak diseinatu, prestatu eta egin behar dira, irakurketa eskolan eta eskolaz kanpo bultzatzeko.*
- *Funtsezkoa da ikasgelako eta ikastetxeko liburutegia erabiltzea, eta bai liburuaren inguruko ekintzak antolatzea ere.*
- *Proposamen polita litzateke ikastetxeko irakurketa-ordua antolatzea, irakasleen proiektu gisa.*

2.2.6. Arlo honetan, badirudi talde-lanak ikasten laguntzen duela.

Talde-lanean gehien aritzen diren ikasleek emaitza hobeak dituzte, taldean gutxi edo oso gutxi aritzen direnek baino. Talde-lanaren eta hizkuntzan gehiago ikastearen arteko harremana egotea zentzuzkoa da, arlo honen helburua baita ikasleak komunikazio gaitasun-maila ona lortzea, hau da, hizkuntza erabiltzea egoera eta testu desberdinetan, eta besteekiko harremanetan.

Gomendioa:

- *Talde-laneko hizkuntza-jarduera gehiago egitea —elkarrekin hitz egiten, idazten eta gogoeta egiten ikasteko—, dirudienez, jarduera horiek emaitzak hobetzen lagundu ahal dute.*

2.2.7. Irakasleak sarritan denbora guztia gauzak azaltzen pasatzen duenean, ikasleak emaitza okerragoak ditu, irakasleak hori gutxiago egiten duenean baino.

Arloko denbora gehiena maiz gauzak azaltzen pasatuz ez dirudi ikasketa hobetzearekin lotu ahalko denik, azterketen arabera metodologia hori erabiliz lortzen diren emaitzak baxuagoak baitira. Jakina, horrek ez du esan nahi eduki berriak azaldu behar ez direnik, edo, batzuetan, gaiak hala eskatutakoan saio osoa azalpenak ematen pasatuko ez denik. Emaitzen arabera, badirudi estrategia hori maiz erabiltzen denean okerragoak direla emaitzak.

Gomendioak:

- *Irakasleak jakin behar du ez dela komenigarria berarentzat hartzea eskolako denbora guztia, beti edo gehienetan hitzaren jabe izatea. Estrategia hori ez da koherentea Curriculum Garatzeko Dekretuak arlo honetarako proposatzen duen ikuspegi komunikatiboarekin: gehiago bultzatzen ditu ikasleen parte-hartzea eta ikasgelako harremanak, ikasketa errazteko.*
- *Ikuspegi eta metodologia horietarako prestatzen jarraitu behar dira irakasleak.*

2.2.8. Testu-liburua gehiago edo gutxiago erabiltzeak ez dirudi ikasketari eragiten dionik; nolanahi ere, etxean ariketak eta ikasgelan kontrolak eginda, emaitzak hobetzen direla dirudi.

Testu-liburua gehiago edo gutxiago erabiltzeak ez du emaitza desberdinik eragin, badirudi ez duela eraginik, batez ere irakasleek hainbeste erabiltzen dutelako, eta erantzunetatik ez da ondorioztatzen bestelako aukera argirik.

Bestalde, egindako analisien arabera, etxean eskolako lanak egiteak ikasleari lagundu egiten dio eskolan ikasitakoaz gogoeta egiten eta hori sendotzen, baldin eta ondoren lan horiek ikasgelan zuzendu eta egiaztatzen badira.

Kontrolak egiteak ere laguntzen duela dirudi, ikasleak zenbat aurreratzen ari den jakin dezan.

Gomendioak:

- *Komenigarria da etxeko ariketak planifikatzea, prestatzea eta egitea -adinaren eta etapako eskakizunen arabera- ahalik eta ikasleak ikasi duena egiaztatu, hausnartu edo zehaztu dezan, eta ondoren ikasgelan zuzendu, laguntza prozedura gisa eta norberak ikasketak kontrolatzeko moduan.*
- *Kontrolak prestatzea, ikaslearen ikasketa nola doan jakiteko, eta ikasleak bere ikasketak erregulatzeko jakin dezan.*

2.2.9. Ikasmaita errepikatzeak eta maila sozio-ekonomiko eta kulturalak gehien eragiten duten faktoreak dira Gaztelaniako probaren emaitzak azaltzeko orduan.


Arloaren eredu-esplikatzailaren arabera, ikasmaita errepikatzea da gehien eragiten duen faktorea: 250 puntutik, 32 puntu artekoa izan daiteke bere eragin txarra. Hurrengo eragilea, familiaren maila sozio-ekonomikoa eta kulturala da. Ikasleen jokabide arazotsuak ere badu eragina, baina ez aurreko biek hainbat.

Bestalde, eta hala espero genuenez, etxeko hizkuntza eta eskolakoa bat datozenean, emaitzak hobeak dira. Aipatze-koak dira sexua eta familiak ikasketari egiten dien jarraipena ere. Arlo honetan, mutilek baino emaitza hobeak dituzte neskek. Ikasketen jarraipenari dagokionez, emaitzetan eragin nabarmena du bi gurasoek batera egiteak.

2.3. MATEMATIKA ARLOA

Arestian genioen bezala, ez dago alde esanguratsurik 1999ko eta 2004ko emaitzen artean. Eduki-bloke bakoitzeko erantzun zuzenen ehunekoa dator 9. grafikoa:

9. grafikoa. Eduki-bloke bakoitzeko emaitzak. Matematika



2.3.1. Ikasleek informazio matematikoa antolatzen lortzen dituzte emaitzarik onenak.

Azpirarratzekoak dira *Informazioa antolatzea* blokeko emaitzak, hau da, grafikoak irakurtzea, informazioa grafikoen eta zenbakien bidez erakustea, eta probabilitateak kalkulatzeko kasu sinpleetan. Hain zuzen ere, Grafikoak erakustea eta interpretatzea atalak izan ditu proba guztian puntu gehien. Nolanahi ere, Probabilitateak kalkulatzeko ataleko erantzun zuzenak batezbestekotik behera daude. Grafikoen emaitza onari eutsiz eta probabilitateen emaitza hobetuz gero, ezin hobeto menderatuko da eduki-bloke hau. Eduki hauek jakinda posible da komunikazio normalean dauden estatistikaren hizkuntzako informazio sinpleak interpretatzea, eta baita informazioa sortzea eta zabaltzea ere.

Gomendioa:

- *Emaitza onei eusteko, Lehen Hezkuntzako irakasleek grafikoak erabiltzen eta interpretatzen jarraitu behar luke, baina "probabilitateak kalkulatzeko" alde batera utzi gabe. Beharbada probabilitateei buruzko edukiak adin horiei zuzendutako testu-liburuetan eta curriculum programazioetan ez daude behar diren beste. Eduki hori eraman daiteke irakasleen prestakuntza-saioretara eta ziklo-bileretara, horretarako probabilitateen ariketa praktikoak eta desberdinak eskainiko dituzten baliabide didaktikoak aukeratu beharko liriteke.*

2.3.2. Ikasleek behar hainbat dakite Zenbaki eta eragiketa matematikoei buruz.

Zenbakiak eta eragiketak blokea ez da oso zaila izan ikasleentzat: emaitzak batez bestekotik hurbil daude. Erantzun zuzen gehiago izan dira *Zenbaki-sistema hamartarrean*, eta emaitzak hobetu behar liriteke *Eragiketak eta kalkuluan*, eta *Zenbaki-espresio, ehuneko eta zatikietan*.

Gomendioa:

- Zenbaki naturalak, zenbaki-espresioak, ehunekoak eta zatikiak, eta zenbaki-sistema hamartarraren ezaugarriak zeuden itemetan. Komenigarria da ikasleei egoera desberdinak biltzea eta ikasleei ematea, eta haietan zenbaki naturalak, zatikizkoak eta hamartarrak agertzea, ehunekoak kalkulatzeko eta interpretatzeko, kalkulu mentalak egitea eta zenbaki hamartarrak biribiltzea.

2.3.3. Ikasleek maila egokian menderatzen dute Magnitudeen neurria, baina emaitzak hobetu behar dituzte Angeluen neurrian.

Eduki-bloke honetako hiru ataletatik bitan, *Sistema metriko hamartarrean* eta *Denboran*, emaitzak batez bestekoa baino pixka bat hobek dira. Nolanahi ere, Graduaren neurriko emaitza zuzenak, arloaren batezbestekoa baino ehuneko zazpi puntu gutxiago dira. Ebaluazioan azaldu diren gaiak honakoak izan dira: Sistema Metriko Hamartarraren unitateak (luzera, gainazal, edukiera, masa eta pisua), eta denboraren eta angeluen unitateak erabiltzea. Neurketa-unitatez zekitenaz gain, ikasleak erabilitako neurketa-prozedurak eta -estrategiak ere baloratu dira.

Gomendioa:

- Luzerak, pisuak, denborak, eta abar kalkulatzeari utzi gabe, irakas- eta prestakuntza-taldeek Angeluen neurketa irakasteko estrategiak berrikusi beharko lukete. Informazio-iturri desberdinak erabiltzea eta irakasleen artean baliabideak trukatzeko interesgarria izan daiteke, irakaskuntza aldatzeko eta hobetzeko.

2.3.4. Ikasleak ez ditu behar bezala menderatzen geometria-edukiak, batik bat perimetroen, areen eta bolumenen kalkulua.

Geometria bloke honetako emaitzen batez bestekoa da apalena arlo osoan. Behar hainbat menderatzen dituzte *Adierazpen-sistemak*, batez bestekoa baino 10 puntu gehiago; nolanahi ere, kezkatzekoak dira *Perimetroak*, *areak* eta *bolumenak* ataleko emaitzak, batezbestekoa baino 10 puntu gutxiago: hau da, probako puntuaziorik apalena. Bloke berean, hobetu beharra dago *Planoaren elementuak* atala ere: hau da, planoko irudi geometrikoak, simetria-ardatzak eta abar. Izan ere, batezbestekoa baino bi puntu beherago daude emaitzak.

Gomendioa:

- Irudi geometrikoen ezaugarriak, eta areen eta perimetroen kalkulua landu behar dira, horretarako egoera praktikoa eta problema zehatzak aztertuz. Emaitzak behin eta berriro kaskarrak direnez, eduki horiek lantzeko esperientzia erakargarriak eta eraginkorrak zabaldu beharko lirateke.

2.3.5. Ikasleek ongi dakizkitezko kontzeptu matematikoak, baina ez dira trebeak problemak ebazten.

Ikasleak batezbestekotik gora daude kontzeptuen ezagueran; nolahi ere, *Prozedurak eta estrategiak* eta *Problema ebaztea* ataletako emaitzak oso apalak dira. Azken horretan, emaitzak oso larriak dira: adibidez, Proba Orokorreko *problema irekien* erdiak 0 puntu izan dute, batez beste. Problema irekietan oso erantzun zuzen gutxi jaso dituzte: problema batzuetan, ikasleek %70ek izan du puntuazio apala. Oro har, ikasleek emaitza onak dituzte eduki klasikoetan —zenbakikuntza, eragiketak, eskalak, etab.—, eta, aldiz, kontzeptuzkoak soilik ez diren gaitasunetan baxuagoak. Halaber, problema desberdinak egin eta asmatzen dituztela diotenen emaitza hobeak dituzte Matematikan, liburuko problemak besterik egiten ez dituztenek baino.

Gomendioak:

- *Irakasleek eta prestakuntza-arduradunek ikas baliabideak ugaritu eta zabaldu behar lituzkete, Matematikan Problema ebaztea bultzatzeko, hori baita proba honen hutsunerik larriena. Ikasleek erantzun dutenez, testu-liburua da tresna nagusia gai bat aurkezterakoan, nahiz eta ikasleek erdiak esan liburukoak ez diren ariketak ere egiten dituztela; nolahi ere, talde-lana edo egoera praktikoen bidez eduki matematikoak aurkeztea ez dira ohikoak. Matematikaren bitartez, hainbat kultur ohitura, hizkuntza eta konbentzio ezagut daitezke, eta eguneroko egoerak konponatzeko tresnak ere ematen dizkigu, baina, dirudenez, ez da behar hainbat aintzat hartzen.*
- *Diziplinarteko lana eginez matematikako eta beste arloetako edukiak lotuko balira, hobeto ikasiko lirateke ikasgelan edo testu-liburuan gutxi aipatzen diren edukiak, edo behar bezala lantzen ez direnak.*
- *Kontuan hartuz Proba Orokorreko problema irekietan zeinen emaitza kaskarrak izan dituzten, gure proposamena da problema erakargarriak eta desberdinak egitea, problema asmatzea, testu eta egoera desberdinetan bilatzea, nola edo hala aldatzea formulazioa, garapena eta emaitza, etab. Horiek denak hartu behar dira kontuan prestakuntza-prozesuetan, eta Matematikarako adibideak eta ikas baliabideak egiterakoan.*

2.3.6. Badirudi emaitza onak dituztela metodologia-mailako proposamen berri hauek: egoera praktikoa, problema eta baliabide desberdinak, eta ikaskuntza kontrolatzea.

Hainbat faktore didaktiko eta metodologiko aztertu ostean, honako ondorio hauek agertu dira:

- Matematika-gaiak egoera praktikoen bidez eta material desberdinak erabiliz aurkezteak eragin ona du emaitzetan.
- Problema desberdinak egin eta asmatzen dituztela diotenen emaitza hobeak dituzte Matematikan.
- Metodologia praktikoen bidez, eguneroko bizitzako materialak eta azalpenak emanez, eta baliabide desberdinak erabiliz (grafikoak, planoak, marrazkiak, etab.) emaitza hobeak izaten dira.
- Problema eta edukiak lantzeko orduan testu-liburura soilik mugatzen ez direnaren emaitza esanguratsuki hobea da, testu-liburua iturri bakar gisa erabiltzen dutenarena baino.
- Etxeko ariketak ikasgelan maiz zuzendu eta kontrolak egiten dituztela dioten ikasleek emaitza hobeak dituzte Matematikan, halakorik egiten ez dutenek baino.

Gomendioak:

- Aurreko datu horietatik, Matematikak ikasteko eta irakasteko eta irakasleak prestatzeko hainbat ondorio atera daitezke:
 - Ikasleentzat praktikoak eta esanguratsuak diren egoerak erabiltzea.
 - Problemen bitartez erronkak egitea, matematikako material eta baliabide desberdinak erabil ditzaten.
 - Informazio-iturriak ugaritzea.
 - Matematikako edukiei buruzko lan pertsonala bultzatzea, eta irakatsitakoa kontrolatzea.

2.3.7. "Familiakoen ikasketa handienak" izeneko ikasgelako faktorea da eragin handiena duena Matematikaren emaitzan, baina faktore pertsonal eta familiar batzuk ere oso garrantzitsuak dira.

Gurasoen ikasketa handienak deitu dugun ikasgelako faktoreak eragina erabakigarriena du Matematikaren emaitzetan. Alde handia dago, gurasoen ikasketa-mailaren arabera.


Gainera, beste arloetan bezala faktore pertsonalak eta familiarak ere badaude, batez ere familiaren maila sozio-ekonomikoa eta ikasmailerik errepikatu ez izana. Halaber, mesedegarria da eskolara hiru urterekin edo lehenago hasi izana, eta ikaskideekin arazorik ez izana (irainak edo erasoak).

2.4. INGURUNEAREN EZAGUTZA (curriculum komuna eta euskal curriculum) ARLOA


Lehenago esan bezala, Ingurunearen Ezagutza arloa neurtzeko bi proba egin dira: autonomia-erkidego guztiek egingakoa (curriculum komuna), eta geure curriculumeko edukiak neurtzeko sortutakoa (euskal curriculum).

Ebaluazioaren Txosten orokorrean bakoitza bere aldetik aztertu den arren, badirudi neurri handi batean ondorio bateratuak ateratzea komeni dela: batetik, proba bakoitzeko emaitza batzuk konpara daitezkeelako, eta, bestetik, arlo bera delako eta ikasle berek erantzun dutelako. Hala eta guztiz ere, ondorio batzuk arloko proba bakarrari dagozkie.

10a grafikoa. Operazio kognitiboen emaitzak. Ingurunearen Ezagutza, curriculum komuna



10b grafikoa. Operazio kognitiboen emaitzak. Ingurunearen ezagutza, euskal curriculuma



2.4.1. Ikasleek ongi samar menderatzen dituzte arloko eduki teorikoak –batik bat ulermena–, baina zailak egiten zaizkie alderdi praktikoagoak: ikasitakoa aplikatzea, eta informazioa eta gertaera sozialak eta naturalak aztertzea.

Ingurunearen Ezagutzaren oinarritzko edukiei buruzko bi probetan argi geratu da, lehen-lehenik, ikasleak trebeak direla ulermena gaitasunean. Ezagutza operazio kognitiboan probak emaitza apalagoak izan ditu, curriculum komunaren batezbestekotik behera; baina, oro har, ikasleak hobeto moldatzen dira alderdi teorikoekin, praktikoekin baino. Horrela, ikasitakoa aplikatzea eta analizatzea azken lekuetan daude. Horrek esan nahi du hutsune nabaria dagoela arloaren esparru praktikoan, eta, beraz, eten bat dago ikasleen gaitasunean.

Ikaskuntzaren eta irakaskuntzaren prozesuak modu orekatuan garatu behar ditu operazio kognitibo bakoitzaren gaitasunak. Ikaslea bizi den errealitate konplexua ongi ezagutu eta ulertu beharra dago, baina gaitasun horiek ezin dira alden du azken helburuetatik: ikasleak errealitatea aztertzeko era aktiboan, kritikoa eta arduratsuan eta parte hartze gaitasuna garatzea.

Gomendioa:

- Ingurunearen Ezagutzako irakasleak operazio kognitibo bakoitzaren planifikazioa berrikusi beharko luke arloko programazioetan, orekatuagoak egon daitezkeen. Gainera, eguneroko jardueretan lan praktikoa indartu behar du, ikasitakoa aplikatu, eta egungo gizarteko alderdiekin, erakundeekin, ingurumenarekin, kulturarekin... lotzen diren informazioak eta gertaerak aztertu. Alderdi praktiko horrek esanahia eta funtzionaltasuna ematen dio ikasteari.

2.4.2. Ikasleek emaitza onak dituzte bere nortasun pertsonalari buruzko alderdietan, baina ez dute behar adinako mailarik beren osasunaren eta elikadura osasuntsuaren atzetan.

Ikasleek emaitza onak dituzte alderdi pertsonalen eta balioen mailan (nortasun pertsonala eta soziala, eskubide-berdintasuna, eta sexuen arteko aukera-berdintasuna). Halaber, nahikoa daki janariaren ezaugarriez eta giza anatomiaren oinarritzko ezaugarriez.

Nolanahi ere, ez du behar adinako mailarik gorputzaren funtzionamendua ulertzen eta identifikatzen —sistemak eta organoak—, eta ohitura osasuntsuak izateko alderdiak aplikatzen (elikadura, ingurunearen erasoak...).

Gomendioa:

- *Giza gorputzaren funtzionamendu konplexuari buruzko edukiak indartzea, eta baita elikadura- eta osasun-ohiturei buruzkoak ere, batik bat norberak eguneroko bizitzan erabiltzeko balio dutenak.*

2.4.3. Ikasleek maila egokian ezagutzen dute ingurune naturalaren tratamendua.

Oro har, Ingurunearen Ezagutzako probetan, ikasleak erakutsi du baduela jakintzarik eta gaitasunik bere ingurune naturaleko informazioa interpretatzeko, gehienbat alderdirik deskriptiboena: adibidez, fauna eta flora, eta ingurune fisikoaren ezaugarriekin dituzten harremanak. Euskal Herriaren ingurune fisikoari buruzko emaitza on hori berretsi egiten da, oro har, Iberiar penintsulari buruzko edukiak lantzerakoan. Berez, maila egokia du Iberiar penintsularen eta planetaren ingurune fisikoari buruz, baina badaude salbuespenak oinarritzko alderdiren bati buruz.

Emaitzetan denetik dago, baina alderdi konplexuagoak aztertzeke orduan —hala nola paisaiak eta inguruneke problema batzuk—, puntuazioak behera egiten du.

Gainera, orientazio espazialarekin zerikusia duten arazoak argitu behar dituztenean, ikasleek zailtasun gehiago dituzte. Batezbestekotik bost puntu egin dute behera. Gabezia hori bera azaldu da Lehen Hezkuntzaren aurreko ebaluazioetan ere, eta, nonbait, oraindik zuzentzeko dago.

Nolanahi ere, atal hau, bere argi-itzal guztiekin, ez da kezkarria, ingurune naturalari buruzko emaitza orokorra ingurune sozialari buruzkoa baino hobea baita. Horrela, ikasleak maila hobea du aldameneko ingurune naturalari buruz (euskal curriculumaren batez bestekoa baino 3,1 puntu gorago) alderdi orokorreari buruz baino (curriculum komunaren batezbestekoa baino hamarren batzuk gutxiago).

Hala eta guztiz ere, kontuan izan behar da hezkuntza-sistema gero eta presio handiagoa ari dela jasaten, eduki berriak har ditzan eta gizartean sortzen diren arazoei aurre egiteko trebetasunak landu ditzan. Curriculumak gai izan behar du bere burua etengabe berrikusteko eta eguneratzeko, baina ahaztu gabe ikaslearen prestakuntzan oinarritzkoak diren edukiak, arloari egitura sendoa eta koherentea ematen diotenak.

Gomendioak:

- *Ingurune fisikoaren alderdi batzuei buruzko tradiziozko eduki batzuk indartzea, hala nola, erliebea, eguraldian informazioa interpretatzea, mapak eta planoak irakurtzea, etab., eta faktore desberdinen arteko harremana ere.*
- *Plano edo eskema espazial batean orientatzeko problemak lantzea hobetu behar da, ikasle gehienei zaila egin baitzaie orientatzea eta puntu kardinalak identifikatzea.*

2.4.4. Eraitza desberdinak daude ingurune sozialaz eta gure gizartearen antolamenduaz.

Inguruneari buruzko eraitza osoa aztertuz, ingurune sozialeko eraitzak ingurune naturalean baino apalagoak direla ikusten da. Nolanahi ere, errendimendua heterogeneoa da, curriculum komuneko eraitzarik onena gizartearen antolamenduan eta hedabide eta garraibideetan izan baita, baina, aldiz, euskal curriculumean batez bestekoa baino 3,3 eta 4,6 puntu artean gutxiago izan da.

Hedabideei buruzko edukiek (egitura, informazioaren tratamendua, etab.) eraitza oso desberdinak izan dituzte, gaieren arabera eta neurtu den moduren arabera. Gogora dezagun hedabideak arduraz erabiltzen eta jarrera kritikoa garatzen ere hasi behar dela hezkuntzaren hasierako faseetan. Hedabideei buruzko gaitasunak modu desorekatuan garatu direlako gertatu dira, agian, eraitza desberdin horiek.

Bestalde, ekonomiari eta lanaren antolamenduari buruzko itemen eraitza eskasa da, eta, aldiz, garraibideei buruzkoak dira alorraren indarguneetako bat.

Eraitza desberdinak daude euskal populazioaz eta habitataz, eta problema eta ezaugarri demografiko orokorrez. Ikaslearen zati batek bakarrik lortu du maila egokia esparru horietan.

Gomendioak:

- *Populazioari buruzko eta gizartearen antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko alderdi oinarriko batzuk indartu behar dira, ebaluazioan ikasleek ez baitute behar hainbat gaitasun erakutsi. Esate baterako, egitura ekonomikoari buruzkoak -sektore tertziarioa, ekonomia berria eta gizarteko aldaketa etengabeak- eta baita populazioari buruzkoak ere.*
- *Lehentasuna eman behar zaie hedabideen garrantziari: beren egiturari, eta, oro har, informazioaren tratamenduari.*

2.4.5. Ikasleek ez dute behar adinako mailarik Euskadiko eta Espainiar estatuko antolamendu politikoaz, erakundeez eta haien funtzionamenduaz.

Eraitza onak dituzte Europar Batasunari buruzko itemetan, batik bat kide diren herrialdeei buruz, baina gehienek ez dakite zertarako sortu den nazioarteko erakunde hori.

Bestalde, ikasleek ez dituzte eraitza onak Espainiar estatua autonomia-erkidegotan antolatzearen, espainiar Konstituzioaren eta antolamendu politikoaren ataletan (batezbestekoa baino 3,4 puntu gutxiago).

Halaber, Euskadiko sistema politikoaz eta erakundeen funtzionamenduaz galdetzean, puntuazioak behera egiten du, baina Estatuko edukiei buruz baino gutxiago (2,4 puntu gutxiago). Emaitza horren atzean kontrasteak daude: ikasleek ezagutzen dituzte gizarteko zerbitzu publiko oinarrizkoak (osasuna eta larrialdien arreta), baina puntuazioa nabarmen jaisten da Euskadiko lurraldeen eta erakundeen antolamenduari buruzko itemetan.

Erakundeei buruzko jakintza apalak behartu egiten gaitu haiek garrantzia azpimarratzera eta gaitasunak lortzera, ikasleak erabili eta uler ditzan inguruko erakundeak (udala) eta haien zerbitzuak (osasuna, hezkuntza, kontsumoa, kultura...).

Gomendioak:

- *Gizartearen erakunde demokratikoei buruzko eta beren funtzionamenduari buruzko edukiak indartu beharko lirarteke -hasi herri-mailan, eta autonomia, estatua eta Europa arte- eta arreta berezia jarri Euskadiren egitura sozialean eta administratiboan.*
- *Mapak erabiliz landu behar da Euskadiren lurralde-antolaketa, eta inguruko probintziak eta autonomia-erkidegoak ezagutzea.*

2.4.6. Ikasleek ez dute behar adinako mailarik teknologiko edukietan eta fisikari eta kimikari lotzen diren zientifikoetan.

Aurreko ebaluazioetan, Euskadiko ikasleek ez zuten behar adinako mailarik ingurune materialak ezagutzeko eta sailkatzeko, haien jokabidea eta aplikazioa ulertzeko, edo makinak eta aparatu sinpleak nola dabilzan jakiteko eta seguru erabiltzeko. 2004ko ebaluazioan, emaitzak probaren batezbestekotik behera jarraitzen du, baina hobera egin du. Bestalde, hor jarraitzen du mutilen eta nesken arteko aldeak, bai Makinak eta aparatuak bai *Materialak eta beren ezagutza* ataletan. Bietan, mutilen emaitzak dezente hobeak dira esanguratsuki.

Gomendioak:

- *Lehen Hezkuntzak ikasle guztiei bermatu behar die oinarrizko prestakuntza zientzian eta teknologian. Horrela, bloke horien edukiak berrikusi beharko lirarteke Lehen Hezkuntzako Curriculum Garatzeko Dekretuan, beste bartzuen barruan baitaude, eta horrek ez die laguntzen garrantzia hartzen.*
- *Irakasleek beren programazioetan denbora nahikoa eskaini behar die zientziako eta teknologiko edukiei, ikasleek oinarrizko alderdiak ikas ditzaten, eta beren eguneroko bizitzarekin eta esperientziarekin harremanean jar ditzaten..*
- *Baliteke irakasleak prestatu beharra egotea zientzian eta teknologian, eta baita Euskadiko hezkuntza-administratioak esparru horren berrikuntza bultzatu behar izatea, etapa honetan erabil daitezten*
- *Lehen Hezkuntzako zentroetan eduki horiek lantzeko eta esperimentatzeko instalazio egokiak egon behar dute (laborategi multifuntzionalak), eta baita horiek mantentzeko baliabideak ere.*
- *Curriculum materialak berrikusi behar dira (testu-liburuak, unitate didaktikoak, adibideak...). Oro har, Euskadin erabiltzen direnek ez diete behar adina arreta ematen zientziari eta teknologiari.*

- *Azken gomendia da neskengan arretoa berezia jartzea, zientzian eta teknologian oraindik dauden errendimendu desberdinak ezabatzeko. Zientziaren eta teknologiaren arloan islatzen da sexuen arteko berdintasunak edo hezkidetza hezkuntzan duen osasuna. Arlo hau zehatz ikertzeak asko lagunduko luke, zalantzarik gabe, erabakiak hartzeko orduan.*

2.4.7. Ikasleen zati handi batek zailtasunak ditu eduki konplexuen aurrean: adibidez, kausak detektatzen, gertaera beraren faktore desberdinak aztertzen, edo aldagai bat baino gehiago duten adierazpen grafikoak interpretatzen. Aldiz, emaitza onak dituzte grafiko sinpleak lantzen eta aztertzen.

Askotan, zailtasunak ez dira gaiagatik edo eduki-motagatik, baizik eta item batzuk konplexuak izan direlako. Egia da Lehen Hezkuntza amaitzean ikasleek garaturik izan behar dituztela Curriculum Garapenerako Dekretuan datozen gaitasun oinarriko batzuk. Dena dela, ez dirudi oinarriko maila gainditzen duten ikasleen kopurua handia denik.

Irakasleentzat erronka da ikaskuntza eta irakaskuntzaren prozesuan aurre egitea gertaera natural, sozial edo kultural konplexu eta ugari. Etaparen amaieran posible da eduki konplexuak lantzea, eta horietako oinarrikoenak zertxobait sakontzea. Gainera, Lehen Hezkuntzaren amaieran finkatu behar dira pentsamendu abstraktuaren eta konplexuaren oinarriak (Bigarren Hezkuntzan sakonduko da). Nolanahi ere, ikasle gehienek gainazaletik eta era homogeneoz sumatzen dute hainbat eta hainbat gertaera.

Bestalde, neurtu ditugun ikasleek errendimendu ona dute grafikoak aztertzen eta egiten, baina 1999an baino okerreago, aldagai bakarrek adierazpen sinpleak direnean (lerro-, barra- edo zirkulu-erakoak). Aldiz, puntuazioa dezente jaisten da bi aldagai edo gehiago direnean. Beste hainbeste gertatzen da Kristo aurreko eta ondorengo datak erabiltzen direnean, eguraldiaren datuak interpretatzerakoan zerotik gora eta beherako tenperaturak nahasten direnean..

Gomendioak:

- *Kausa desberdinak eta aldaketa-prozesuak aztertzeko gaitasunak landu behar dira, alde batera utziz azalpen sinplistikak eta estereotipatuak, ahalik eta bistakoa denaren aurrean ikasleari zalantza eragiteko, eta sen kritikoa, zentzuzkoa eta heldua indartzeko.*
- *Inguruko gertaerak aztertzeko estrategiak zabaldu egin behar dira: hau da, benetako adibideak erabili, ikasleak horiekin jardun eta zuzeneko informazio eskuratu ahal izan dezan. Ikusienez, oro har, ingurune sozialari buruzko puntuazioa probaren batezbestekoa baino beheraxeago dago. Horregatik, gertaeren konplexutasuna, ikuspuntu desberdinak, partaideen interesak, problemak ebazteko aukerak eta abar aztertzearen poderioz, pentsamendu konplexua eta abstraktua garatzen hasten gara, eta komeni da horretan hastea ikaslearen inguruko gertaerekin.*
- *Aldagai bat baino gehiagoko grafiko konplexuak aztertzea indartu behar da, eta horrela hurbildu gertaeren eta beste aldagaiekin duten harremanen konplexutasunera.*

2.4.8. Ingurunearen Ezagutzari buruzko probak erakusten du ikasleak, oro har, emaitza apalak dituela problemak ebazten, batik bat ingurune natural eta fisikoari buruzkoetan. Nolanahi ere, emaitzak hobekak dira ebazpena alderdi teknikoren batean oinarritzen denean, adibidez kalkulu matematikoetan.

Problemak ebaztearen estrategia gero eta garrantzitsuagoa da, eta Matematikaren muga gainditzen du. Problemak planteatzea erronka bat da ikaslearentzat, prozedura eta teknika egokiak erabiliz ebatzi behar du, ikertzeko gaitasunak indartzeko balio dio, egoerak neurtzen ikasten du, sen kritikoa sustatzen du, iritziak kontrastatzen, hipotesiak egiaztatzen... eta ikasitakoa aplikatzen. Gainera, estrategia hori motibatzailea da, eta talde-harremana eta autonomia pertsonala bultzatzen du.

Ingurunearen Ezagutzako ebaluazioaren bi probetan item asko zeuden problema natural, sozial eta kulturei buruz. Erantzunen artean denetik egon zen. Ikasleen emaitzak tartekoak edo onak izan dira kalkulu matematikoak egin behar izan direnean, eta horrek esan nahi du gai dela beste arlo batean ikasitakoa aplikatzeko. Nolanahi ere, kimika, fisika edo biologiari buruzko problemetan, emaitzak ia beti batez bestekotik behera egon dira. Oro har, problemak ebazteko itemengatik 1,0 eta 3,1 puntu artean galdu dituzte.

Bestalde, probetako item batzuetan proposamenen bat egin behar zuten problema desberdinei buruz (ingurumena, gizartea, ezintasun batek eragindakoak, eskolaren inguruneak, etab.), eta emaitza, oro har, apala izan da. Probaren arabera, batezbesteko puntuazioa 6,7 puntu arte jaitzi da. Item gehienak irekiak ziren, hau da, norberak landu behar zuen erantzuna. Emaitza baxuaren arrazoia, agian, ikasleek testu idatziak sortzeko zailtasuna dutenarekin lotu ahal da.

Gomendioak:

- *Irakasleak lehentasuna eman behar dio ingurune naturala eta soziala lantzeari, baina gertaeren deskriptiotik harago joanez. Problematikoa ez ezik dinamikoa ere baden errealitatea aztertzeko eta interpretatzeko estrategia eta teknika pertsonal egokiak ikasi behar ditu ikasleak, eta baita gatazkak neurtzen eta konponbideak ematen edo baloratzen ere.*
- *Norberak egindako lanak ugaritu behar dira. Horretarako, ezinbestekoa da arlo desberdinen arteko irakasleak koordinatzea, arloan horrelako jardueren programazioa planifikatzea, eta idatzi desberdinak egiten jakiteari lehentasuna ematea.*

2.4.9. Ikasleak maila egokia du euskal curriculumeko gaitasun batzuetan, euskal gizartearen nortasunari buruzkoetan.

Euskal curriculumeko proban eduki eta trebetasun ugari neurtu dira. Atal honetako beste puntu batzuetan aipatzen den moduan, ikasleek emaitza onak izan dituzte; adibidez, galdetu zaienean beren nortasunaz, ingurune naturalaz, balioez, hezkidetzaz eta abarrez. Aldiz, emaitza apalagoa izan da galdetu zaienean ingurune sozialaz, egitura ekonomikoaz, erakundeez edo ingurumenaz.

Gainera, probak euskal nortasunarekin lotutako itemak ere zituen. Batetik oinarrizko historiari buruz, eta, horrekin batera, folkloreak eta musikaz, herri-kulturaren adierazpenaz, herri-kirolez, ohiturez, ekonomia tradizionalaz eta abarrez. Ikusienez, gai historikoak ez dituzte hain ezagunak, baina bigarren eduki-multzoari buruzko gaitasun arloaren batezbestekoan daude.

Lehen Hezkuntzaren amaieran, ikasleek finkatuak izan behar dituzte beren nortasunaren oinarriak, eta, era berean, bizi den gizartearen ezaugarri funtsezkoak ezagutu behar ditu —ugariak eta pluralak—, eta harremanean jarri behar ditu gizarte berekoak izanik bestelako identitateak dituztenekin. Horrela, gogoeta eginez, ikastetxe bakoitzak bultzatu eta bizi behar du euskal kultura eta hizkuntzarekiko konpromiso positiboa, eta horrek, zalantzarik gabe, eragina izango du ikasleen jarreran.

Gomendioak:

- *Oro har, komenigarria dirudi euskal kulturaren eta gizartearen oinarrizko gaietan zerikusia duten gaitasunak ikasgelaren barruan, kanpoko jardueratan eta ikastetxe-mailan sustatzea. Horrela, interesgarria da ikastetxearen kultur ekintzetan familiek ere parte hartzea. Tankera horretako programek euskal kulturarekiko estimua eta konpromisoa indartzeko balio dezakete, eta ikastetxeko beste kulturak errespetatzeko eta aintzat hartzeko.*
- *Arrakasta izan duten esperientziak ezagutzeko ikerketa bat egitea, batik bat euskal curriculumeko edukiak arloko alderdi naturalekin, sozialekin eta kulturekin integratzen direnean.*
- *Hezkuntzaren laguntza-zerbitzuetatik indartu egin beharko litzateke euskal curriculumaren aholkularitza, eta aldi berean irakasleak eremu horretan prestatu. Balio handikoa izan daiteke Berritzeguneetan eta INGURUGELA-Ceidan esperientziadun jendea sendotzea. Ildo beretik, programazioen ereduak ematea, baita ikasteko eta irakasteko jarduerak ere, irakasleentzat mintegiak antolatzea... Gainera, ikastetxeetako zuzendaritzek horri buruzko arauak eta orientabideak jaso behar dituzte.*
- *Irakasleak bermatu beharra dauka berak darabiltzan baliabideek nahikoa eta modu egokian lantzen dutela curriculumaren euskal eta europar dimentsioa. Errendimendurik apaleneko edukiak aintzat hartuz, hauexek dira aipagarrienak: eguneroko kultur adierazpenak, janzkera, herriko ohiturak eta produktuak, euskara eta euskal kultura sustatzeko erakundeak, festa nagusiak, landa-ondarea eta, oro har, alderdi historikoak.*

2.4.10. Azterketan agerienez, garapen heterogeneoa dago zehar lerroen gaitasunetan: batetik, hezkidetzan emaitza ona, eta, bestetik, ingurumen hezkuntzan okerragoa.

Berez, Lehen Hezkuntza ebaluazioaren helburua ez zen zehar-lerroak neurtzea. Nolanahi ere, Lehen Hezkuntzako curriculumak zehar lerro batzuk finkatzen ditu curriculum eta hezkuntza-ekintza osoan, horrela erantzuna eman nahian gizartearen kezkei eta eskakizunei; horiek, gainera, ez dira arlo bakar batekoak, eta ezinbestekoak dira pertsonen garapen eta prestakuntza integralerako. Hori dela eta, gogoeta egitera eta gomendioren bat egitera gonbidatzen gaituzte emaitzek.

Oro har, zehar lerroek ez dute hobetu arloaren batezbesteko emaitza. Nolanahi ere, ikasleek curriculum komunean baino 1,5 puntu gutxiago atera dituzte, baina 2,4 puntu gehiago euskal curriculumean. Nolabait ere, zehar lerroko galderak errazagoak egiten zaizkiela dirudi, inguruko alderdiei buruzkoak direnean.

Datu horietan ez da ikusten emaitza desberdinik zehar lerroen artean, eta ezta horietako batzuetan bi proben artean gertatzen den diferentziarik ere. Horrela, *sexuen arteko berdintasunerako hezkuntza* edo hezkidetzari buruzko itemek oso maila ona izan dute (20,5 puntu gehiago euskal curriculumeko probaren batezbestekoan baino), eta baita *kontsumo-hezkuntzari* buruzkoek ere, biak euskal curriculumean soilik neurtuak. Maila orekatuagoan dago *giza eskubide eta bakerako hezkuntza*, curriculum komuneko proban azpimarragarriagoa, eta *osasunerako hezkuntza*.

Beste muturrean, bi probetan errendimendua eskasa izan da ingurumen-hezkuntza (3,2 puntu gutxiago curriculum komunaren batezbestekoan baino, eta 1,9 gutxiago euskal curriculumekoan baino).

Gainerako zehar lerroetan (*hedabide-hezkuntza*, *bide-hezkuntza*, *kulturartekotasunerako hezkuntza* eta *garapenerako hezkuntza*) emaitza desberdinak egon dira bi probetan, segur aski item gutxi zirelako, eta, beraz, arriskutsua da ondorio argiak ateratzea.

Gomendioak:

- *Puntuaziorik okerrera izan duten hiru zehar lerroak -ingurumen hezkuntza, eta osasunerako hezkuntzako eta bide-hezkuntzako alderdi batzuk- Lehen Hezkuntzako ikasleen oinarrizko prestakuntzaren hiru zutabe dira. Emaitza apalaren arrazoia ez da programazioetan ez azaltzea. Beraz, komenigarria da irakasleek gogoeta egitea horien helburu, jarduera eta planteamendu didaktikoez, eta ikustea ea egokiak diren jarrerak, jakintzak eta trebetasunak iratzartzeko ikasleengan.*
- *Sistematizatu egin behar da zehar lerroetako edukiak lantzea, eta programazioetan garrantzia eman. Hipotesi gisa pentsa daiteke batzuetan unean-uneko zerbait egingo dela (ingurumenaren eguna, udaletxeko aditu baten hitzaldia anorexiar, etab.), edo emango zaio "aktibismo" hutsaren ikuspegia (natur gela batera bisitaldia, ingurumen-hezkuntzan diharduten lekuetara txangoa edo egonaldiak...).*
- *Egoeraren diagnostiko objektiboa egiteko, zehar lerroak zehatz neurtu eta ikertu beharko lirateke. Oro har, badaude baliabideak, programak eta moduak irakasleak gai horietan prestatzeko, eta, beraz, zehar lerroak lantzeko orduan eragina duten faktoreak aztertu behar dira: adibidez, zailak direla txertatzen orain curriculum antolatzen dagoen moduan, arloka.*

2.4.11. Ingurunearen Ezagutzan emaitza desberdinak egon dira oinarrizko kontzeptu batzuei buruzko itemetan, esate baterako aldaketari eta gatazkari buruzkoetan.

Lehenago ere aipatu dugu ikasle gehienek nekez aztertzen dituztela kausak —batik bat ugari direnean— eta *ingurunearekin* zerikusia duten gaitasunak.

Arloaren ardatzetako bat da *aldaketa*. Ikasleak errealitatea eta gertaera guztiak —sozialak, naturalak, kulturalak— aztertzen hasten direnean, ohartu behar dute horiek aldakorrek direla, eta etengabeko transformazio, garapen, eta funtsean, aldaketaren mende daudela. Euskal curriculumean kontzeptu honi buruzko galderak emaitza ona izan dute, probaren batez bestekoa baino 5,4 puntu gehiago; curriculum komunean alderantziz gertatu da, batezbestekotik 1,9 puntura dago, baina 1999ko probaren aldean hobera egin du. *Aldaketarekin* erlazionatzen diren kronologiari buruzko itemen puntuazioa batezbestekoaren parean dago.

Bestalde, ebaluazioko emaitzarik onenetakoak izan dituzten itemak gatazka kontzeptuari buruzkoak izan dira. 6,8 curriculum komunean, eta 11,8 euskal curriculumean. Hainbat egoerari buruzko galderak dira: eskolaren esparrua, ingurumen-problema, sexu- edo kultur diskriminazioa, langabezia, etab., eta baita gatazka ebazteko bideak ere.

Gomendioa:

- *Modu espezifikoa landu behar da aldaketaren ideia, ikasleak errealitatearen ikuspegi zurrunik izan ez dezan, batez ere gaur egun, aldaketak hain bizkorrek direnean. Ikasten dutena etengabe berrikusi eta eguneratu beharraz ohartu behar dute.*

2.4.12. Euskal Autonomia Erkidegoan ordu gutxi eskaintzen dizkiogu Ingurunearen Ezagutza arloari, ordu gehiago eskaintzen dizkiegulako Hizkuntzei eta ikastetxeak erabakitzeke orduei.

Euskadin, urtean 175 ordu ditu hiru zikloetako bakoitzean, hau da, denera 525 ordu.

Lehen Hezkuntzan oinarrizko alderdi batzuk finkatu behar dira: nortasun etikoa garatzea, norberaren kultura eta nortasunarekiko estimua, pentsamendu zientifiko eta teknikoaren oinarriak... Helburu horiek guztiak eta beste zenbait lantzen dira Ingurunearen Ezagutzan. Erronka horri aurre egiteko, esan bezala, ez ditu behar hainbat ordu.

Ikusi besterik ez dago ikasleen errendimenduak ez duela aurrera egin. 1999ko emaitzarekin alderatuz (245,1 IET puntu), curriculum komuneko Ingurunearen Ezagutza ez da hobetu 2004an (242,5 IET puntu). Estatistikoki alde hori ez da esanguratsua, eta bere horretan jarraitzen duela dirudi.

Kontuan izan behar da, gainera, Ingurunearen Ezagutzak Euskadiko curriculumean pisu handiagoa duela beste autonomia-erkidegoetan baino: estatuko nahitaezko irakaspen minimoek gain Euskadikoak ere badaude, eta, beraz, curriculum zabala da, baina nekez landu daiteke 525 ordu besterik ez izanda.

Bestalde, DBHn egindako azterketetan (batez ere PISAk 15 urteko ikasleei egindakoetan), gure ikasleek zientzia eta teknologian oinarrizko hutsuneak dituztela ikusi da.

Gomendioa:

- *Hezkuntza-administrazioaren bidez eta ikastetxeak erabakitzen dituen orduen bidez berrikusi behar da Lehen Hezkuntzako arloen ordutegia, ahalik eta Ingurunearen Ezagutza indartzeko. Gutxienez, urtean 280 ordu izan behar lituzke ziklo bakoitzean.*

2.4.13. Ingurunearen Ezagutzako eredurik zabalduena, oro har, klasikoa da: testu-liburua erabili ohi da, banakako lana lehenesten da, etxeko lanak bidali eta ikasgelan zuzentzen dira, gaiak amaitzean kontrolak egiten dira... Arloa aztertzetik ikusi da eredu horiek emaitza onak lortzen dituela, baina ez da aurkitu beste aukerarik, kontrastatu ahal izateko.

Metodologia faktoreei dagokionez, ikasleen erdiak baino gehixeagok (%54,5) sarri erabiltzen du testu-liburua, eta are gehiago gai berria hasterakoan. Testu-liburua sarri erabiltzen dutela diotenen emaitza esanguratsuki hobeak izan dituzte, erabiltzen ez dutenek baino. Emaitza horien arabera, badirudi testu-liburua erabiltzera babes handia dela, eta Ingurunearen Ezagutzako emaitzak hobetzen dituela curriculum komunean.

Bestalde, ikasleek noizean behin taldean lanean ere aritzen direla diote, baina ez dirudi horrek emaitza hobeak eragiten dituenik. Ikasleen erdiak-edo talde-lanak egiten ditu, baina batzuetan bakarrik: % 40k sarri samar edo sarritan, eta % 17,5ek inoiz ez. Estrategia hori askotan hezkuntzako geruza batetik bestera aldatzen da: bistan da, beraz, ikasgelako lana antolatzeke modu desberdinak daudela.

Ikasleen %60 inguruk oso sarri izaten ditu etxeko lanak; ia %80k irakasleak lagunduta zuzentzen ditu gelan; erdia baino gehixeago sarritan banaka aritzen da fitxekin (batzuetan ia %40) eta ia denek (%90en arabera askotan) kontrolak izaten dituzte ikasitakoaz. Gainera, gutxi esan dutenek arlo honetan puntuazio esanguratsuki apalagoa izan dute asko esan dutenek baino, eta, nonbait, aldagai horiek zerikusia dute arloko lanarekin eta probetan emaitza onak izatearekin.

Bestalde, ikasleek diote sarri samar aztertzen dituztela testu eta informazio-iturri desberdinak, hainbat baliabide erabiliz.

Ikasle gehienak (%50 eta %75 artean, gutxi gorabehera) arloko grafikoak, mapak, planoak, marrazkiak, argazkiak eta testuak ikasten eta interpretatzen dituzte; atlas, hormako mapak, maketak eta beste baliabide batzuk erabiltzen dituzte informazioa ateratzeko, eta material desberdinekin aritzen dira. Ugaritasun hori positiboa dela dirudi, ekintza horiek egin eta baliabide horiek erabiltzen dituztela diotenen emaitza hobeak izan baitituzte Ingurunearen Ezagutzan.

Ekintza sortzaileak eta ikaskuntzako eta irakaskuntzako estrategia aktiboak eta berritzaileak gutxi samar direla dirudi. Gutxi gorabehera ikasgelen erditan erabiltzen da noizbait prentsa edo telebista baliabide moduan, jotzen da ikusentzunezkoetara (diapositiben edo gardenkien proiektorea, bideoa, etab.), egiten dira esperientziak ikasgelan edo laborategian, edo burutzen dira eskolaz kanpoko ekintzak (museoak, erakusketak, tailerrak eta abar bisitatzea) eta jokoak edo antzezpenak. Gehien egiten den ekintza gelaz kanpoko da, eta gutxien egiten dena jokoak edo antzezpenak.

Halaber, estratergiei dagokionez, batzuetan irakasleak gai berri bat hasi eta zer dakiten galdetzen die ikasleei, zenbaitetan gaiaren ikuspegi orokorra ematen die eta arbelean gidoia egiten du, eta, gehiagotan, eguneroko bizitzarekin zerikusia duen problema praktikoki baten bidez ematen dio sarrera gaiari.

Laneko eraginkortasunari buruz, ikasle gehienek uste dute hobea dela banaka lanean arituta, baina gustura aritzen dira taldean. Gainera, banaka hobeto aritzen direla diotenek (herenak baino gutxiagok) emaitza hobeak izan dituzte.

Berez, ez doa oso hedatuta dagoen talde-lanaren kulturaren kontra. Izan ere, gehienek diote ona dela taldean lan egitea, lagunei azaltzeak ikasitakoa sendotzeko balio die, eta taldean komunikazio- eta lan-harreman errespetuzkoak eduki beharra aipatzen dute. Berrero ere jarrera horien alde daudenak dira emaitzarik onenak izan dituztenak.

Horrek gogoeta egitera garamatza. Lehenik, banaka edo taldean lan egiteak, berez, ez dituela emaitza hobeak edo okerragoak bermatzen. Areago, zerikusi handiagoa du antolaketa onak, denen arteko arau onartuak izateak, eskuratu nahi den helburua argi hautemateak eta abarrek. Eta, bigarrenik, bi estrategiak direla bateragarriak, osagarriak izan daitezkeela eta biak izan daitezkeela mesedegarriak ikasleentzat.

Gomendioak:

- *Ingurunearen Ezagutzan nagusi den eredu klasikoaren alternatiba gisa ikertzea beste metodologia-eredu eta praktika batzuk.*
- *Ondo funtzionatzen duten proposamenak eta ereduak zabaltzea irakasleen artean, eta prestakuntza ematea aniztasunari arretan, ikasteko zailtasunak gainditzean edo hezkuntza sendotzeko neurrietan.*

2.4.14. Ingurunearen Ezagutzako curriculum komunean eragin handiena duten faktoreak pertsonalak eta familiarak dira; batez ere, indize sozio-ekonomiko eta kulturalak, ikasmaita errepikatzeak eta eskolara hasteko adinak.

Beste guztien gainera, erabakigarriak dira faktore pertsonalak eta familiarak. Horien artean, emaitza aldakorrenak eragiten dituztenak dira familiaren indize sozio-ekonomikoa eta kulturala, ikasmaita errepikatzea edo ez errepikatzea, eta, eragin txar moduan, eskolara berandu hastea. Aldiz, sexuak edo ikasleen artean jarrera arazotsuak egoteak eragin txikiagoa dute. Gainera, ikasgelako indize sozio-ekonomikoak eta familiarak eragin nabarmena duela dirudi, bai eta hizkuntza-ereduak ere, baina gutxiago.

2.4.15. Ingurunearen Ezagutzako euskal curriculumean eragin handiena duten faktoreak pertsonalak eta familiarak dira, batez ere indize sozio-ekonomiko eta kulturala, ikasmaita errepikatzea eta eskolara hasteko adina, eta proba haxe izan da bakarra, sexuen artean desberdintasunik erakutsi ez duena.

Faktore pertsonalak eta familiarak dira, nonbait, emaitzetan eragin handiena dutenak. Batez ere familiaren indize sozio-ekonomikoa eta kulturala, eta, eragin txar moduan, ikasmaita errepikatzea; eragin txarra du, baina gutxiago, eskolara hiru urterekin baino beranduago hasteko ere; eragin txarra are txikiagoa du ikasleen artean jarrera arazot-

suak egoteak eta familiaren ingurunea euskalduna ez izateak, eta, azkenik, aipagarria da ikasleen sexuak ez duela inolako eraginik.

Ikastetxeko eta ikasgelako faktoreei dagokionez, ikastetxearen indize sozio-ekonomikoa eta kulturala da eraginik handiena duena, ona edo txarra, probaren emaitzetan.

IKASLEEN ETA IKASTETXEEN
INGURUNEAREN EZAUGARRIAK ETA
EMAITZETAN DUTEN ERAGINA

3


3. IKASLEEN ETA IKASTETXEEN INGURUNEAREN EZAUGARRIAK ETA EMAITZETAN DUTEN ERAGINA

3.1. Familiaren zein ikastetxearen faktore sozio-ekonomikoek eta kulturalak eragin handia dute arlo guztien emaitzetan.

Indize sozio-ekonomiko eta kulturalan (ISE1) sartzen dira familiaren lanbide-maila, familiaren gehieneko ikasket-maila eta zenbait kultur ondasunen jabetza (liburuak, egunkariak, ordenagailua eta Internet), azterketaren arabera garrantzitsuak).

11. grafikoan¹⁰ jasotzen dira ikasleen ehunekoak, sexuaren eta geruzen arabera, indize sozio-ekonomiko eta kulturalaren lau mailetan (apala, ertain-apala, ertain-altua eta altua), non geruzen arteko alde handiak ikus daitezkeen¹¹ (4. atalean deskribatzen da bakoitza).

11. grafikoa. Indize sozio-ekonomiko eta kulturala (ISE1). Ikasleen ehunekoak



Arlo guztietan, familiaren maila sozio-ekonomiko eta kulturala igo ahala hobetzen dira ikasleen emaitzak (maila apalaren eta altuaren artean, Gaztelaniaren IET 27,5 puntutik euskal curriculumeko Ingurunearen Ezagutzaren 40 puntu-ra); hortaz, indize sozio-ekonomiko eta kulturalak errendimendua aurreikusteko balio digu.

Gainera, indize hori da ikastetxean eragin handiena duen faktorea, eta, bestalde, ikastetxeko faktore gehienak (sarea, eredu...) *baztertzearen*¹² arduradun nagusia da. Dirudenez, ikastetxe baten indize sozio-ekonomiko eta kulturala ezagutzuz gero, ikasleek izango luketen emaitza aurreikusteko datu nahikoa izan daiteke, neurri onargarri batean, faktore horren mendean baitaude ikastetxearen beste ezaugarriak.

(10) Grafiko horretako N kopuruak (ikasleen kopurua) ez datoz bat ebaluazioko laginarekin (ikus 3. orrialdean): izan ere, galdera-sortetako itaunei erantzun dieten ikasleen eta familien datuak baino ezin izan dira kontuan hartu.

(11) Honako hauek dira desberdintasunak: A publikoa < B publikoa < D publikoa eta A-B itunpekoa < D itunpekoa.

(12) Aztertu ondoren ikastetxeko aldagai bakoitza —batik bat hizkuntza-eredua eta hezkuntza-sarea— proben emaitzetan desberdintasun nabarmenak daude, handiagoak ala txikiagoak, kasuaren arabera; hala ere, emaitzetan eragina duten aldagai guztiak batera aztertzearan, indize sozio-ekonomiko eta kulturalaren eragina hain handia denez, aldagai batzuk (batez ere ikastetxearekin lotutakoak) desagertu edo kanpoan gelditzen dira.


Azkenik, bi alderdi oso garrantzitsu kontuan hartu behar dira: batetik, maila horrek ez du eragin bera geruza guztietan: esaterako, eragin txikiagoa du D eredukoetan A publikoan baino (honen emaitzak sakabanatuagoak dira); bestetik, geruza batzuetan, ikastetxe gehiago daude espero baino emaitza kaskarragoak dituztenak, adibidez A eta D eredu publikoetan (ikus 4. atala).

Gomendioak:

- *Nahitaezkoa da neurriak eta baliabideak eskaintzen eta gehitzen jarraitzea, beharrezkoa den kasuetan, ikasleen eta ikastetxeen ingurune sozio-ekonomikoa eta kulturala beren beharren arabera konpentsatzeko.*
- *Faktore sozio-ekonomikoak ikastetxe eta geruza bakoitzari desberdin eragiten dionez, kasu bakoitzaren premia eta ezaugarrien arabera baliabide osagarriak eskaintzeaz gain, komeni da aztertzea zergatik ikastetxe batzuetan eragin txikiagoa duen beste batzuen aldean (ikastetxearen "balio erantsia" esaten zaio).*

3.2. Ebaluazioan aztertutako geruza bakoitzaren emaitzak ikusita, batetik arlo bakoitzeko emaitzak nahiko erregularrak dira, baina, bestetik, desberdintasun handiak daude geruzen artean.

12. grafikoa. Arlo bakoitzeko emaitzak, geruzaz geruza



Ebaluazio honetako sei geruzen jokoera ez da guztiz homogeneoa arlo guztietan: geruza bakoitzak proba bakoitzean izandako emaitzei alderdi eta arrazoi desberdinek eragiten diete. 12. grafikoan geruza bakoitzak proba bakoitzean izandako puntuazioa eta marra beltz batez arlo bakoitzeko puntuazio orokorra; eta hortik erregularutasun eta desberdintasun hauek atera ditzakegu:

- **A eredu publikoa** puntuazio orokorretik behera dago arlo guztietan, eta gainerako geruzek baino emaitza baxuagoak ditu: batez ere euskal curriculumarekin loturarik handiena duten Euskaran eta Ingurunearen Ezagutzan (euskal curriculum). Gainerakoekin alderatuta, oso desberdinak dira geruza honen arazoak eta ezaugarri sozio-ekonomiko eta kulturalak: horiek emaitzak azaltzeko balio digute, neurri batean, hurrengo atalean ikusiko dugunez.
- **D eredu itunpekoak** emaitzarik onenak lortzen ditu hiru arlotan, eta batez ere euskal curriculumeko bi proba esanguratsuenetan. Bestalde, emaitzarik onenak lortzen ez dituen bi arloak Gaztelania eta curriculum komuneko Ingurunearen Ezagutza dira, nahiz eta bi kasuetan batez bestekotik gora dagoen.
- **B eredu publikoa** da emaitza orekatuenak dituena: arlo gehienetan (euskal curriculumeko Ingurunearen Ezagutzan izan ezik), tarteko puntuazioa lortzen du.
- **D eredu publikoa** da emaitza sakabanatuenak dituena: ez da batezbestekora iristen hiru arlotan (Matematika, Gaztelania eta Ingurunearen Ezagutza -curriculum komuna-), eta batezbestekoa gainditzen duen bi arloetan (euskal curriculumari lotuetan), ez du gainditzen D eredu itunpekoak bezain nabarmen. Gainera, harrigarria izan daiteke euskal curriculumeko Ingurunearen Ezagutzaren puntuazioa, A eredu itunduko baino zertxobait hobea besterik ez izatea. Beraz, pentsa liteke zenbait aldagaik modu esanguratsuan eta berariazkoan eragiten dutela emaitzetan: batik bat familiako hizkuntza eta probaren hizkuntza.
- **A eta B eredu itunpekoen** emaitzak batezbestekotik gora daude lau arlotan, eta emaitzak oso antzekoak dira bi geruzetan, baina Euskaran B eredu itunduko emaitzak batezbestekoa gainditzen duen arren, A eredu itunpekoa 60 puntu urruntzen da batezbestekotik. Horrenbestez, honexeri jarraitu behar zion bidea Euskara arloko emaitzak hobetzeko: euskararekin lan egiteko curriculumaren espazioa zabaldu.

3.3. Indize sozio-ekonomikoaren eragina kontrolatuz gero geruza bakoitzean, batzuetan puntuazioetako desberdintasunak desagertzen dira; hala ere, beste batzuetan berdin geratzen dira, eta, beraz, indize hori ez da geruzen arteko desberdintasunak azaltzeko balio duen bakarra.


Aurreko puntuan adierazi dugun bezala, familien maila sozio-ekonomiko eta kulturalak eragina du arlo guztien emaitzak desberdinak izate horretan, eta eragin berdina du taldeko familien mailak ere. Bestalde, maila sozio-ekonomiko eta kulturalen banaketa ez da berdina geruza guztietan (ikus 11. grafikoa). Datu horiek erakusten digute ikasleen eta ikastetxeen abiapuntua desberdina dela eta, hasieratik, ikasle eta ikastetxe batzuek desabantailak dituztela besteen aldean.

Geruza bakoitzaren emaitzak zein izango liratekeen kalkulatu dugu, baldin eta ikasle eta lagineko talde guztiak maila sozio-ekonomiko eta kultural antzekoak balira. Alegia, aldagai hori kontrolatuz geruzen arteko aldeak berdinak diren jakin nahi izan dugu¹³.

(13) Galdetegietan oinarritutako datu-analisi guztietan bezala, emaitzak gehiago hartu behar dira tendentzia gisa, behin-betiko emaitzak bezala baino.

Maila sozio-ekonomiko eta kulturalaren eragina kontrolatu ondoren:

13. grafikoa. Emaitzak geruzaz geruza, maila sozio-ekonomiko eta kulturala kontrolatuz



- D eredu itunpekoak gainerako geruzek baino IET puntuazio altuagoa lortzen jarraitzen du Euskararen eta euskal curriculumeko Ingurunearen Ezagutzan; aldiz, Gaztelanian eta curriculum komuneiko Ingurunearen Ezagutzan, sare bereko bi geruzetan baino apalagoa izaten jarraitzen du.
- D eredu publikoak gainerako geruzek baino puntuazio apalagoa lortu du Gaztelanian, Matematikan ez du alde handirik A eredu publikoarekin, ezta curriculum komuneiko Ingurunearen Ezagutzan ere (D itunpekoaren parean dago), eta beste bi probetan -Euskararen eta euskal curriculumeko Ingurunearen Ezagutzan- gainerako geruzen emaitzak gainditu ditu, D kontzertatuarenak izan ezik.
- A eredu publikoak beste geruzekin alderatuta ez ditu diferentzia esanguratsurik proba gehienetan, Euskararen izan ezik: gainerako guztien azpitik jarraitzen du. Gaztelanian eta curriculum komuneiko Ingurunearen Ezagutzan ere D eredu publikoa gainditzen du.
- B eredu publikoak D ereduak baino emaitza baxuagoak ditu Euskararen, baina gainerakoen antzekoak ditu eta D publikoak gainditzen du Gaztelanian, Matematikan eta euskal curriculumeko Ingurunearen Ezagutzan (kasu horretan, D itunpekoak bakarrik gainditzen dio); gainera, bere puntuazioa bi D ereduak baino hobea da curriculum komuneiko Ingurunearen Ezagutzan.
- A eredu itunpekoak oso emaitza desberdinak ditu eta, nahiz eta askotan besteen emaitzak berdindu, besteekin dituen diferentzia esanguratsuak honakoak dira: D ereduak baino emaitza hobekak ditu Gaztelanian, A eta B eredu publikoak baino Matematikan, B eta D itunpekoak eta D publikoak baino Ingurunearen Ezagutzeko curriculum komunean, baina euskal curriculumeko Ingurunearen Ezagutzan D itunpekoak baino apalagoak.
- B eredu itunpekoak alde nabarmenak ateratzen dizkio D ereduak baino, Gaztelanian, Matematikan (D publikoari), baina D itunpekoak aurrera hartzen dio curriculum komunean eta euskal curriculumeko Ingurunearen Ezagutzan; beste geruzekin desberdintasun jakin batzuk baino ez daude.

Gomendioak:

- *Ikusten denez, zenbait geruzatan maila sozio-ekonomiko eta kulturala kontrolatuz gero, gainerako geruzen emaitzak berdintzen dituzte (A publikoak, kasu), baina, beste batzuetan -D publikoan, adibidez-, gainerakoek baino puntuazio apalagoak dituzte hainbat probatan: beraz, bada beste zerbait geruza horren emaitzak baldintzatzen ari dena, hala nola probaren hizkuntza eta familia-hizkuntza (ikus 1.7 puntua), edo beste zerbait, ikertu beharko dena.*

3.4. Lehen Hezkuntzan ikasmila bat edo gehiago errepikatu duten ikasleek emaitza apalagoak lortzen dituzte arlo guztietan, adin berekoekin ikasi dutenarekin alderatuta.

Etaparen horretan¹⁴ ikasmila bat edo gehiago errepikatu duten lagineko ikasleek %10 inguruk, inoiz errepikatu ez dutenek baino emaitza apalagoak dituzte arlo guztietan (40 punturen aldea Ingurunearen Ezagutzeko bi probetan eta Matematikan, eta 30 puntu hizkuntza-arloetan).

Kontuan izan behar dugu errepikatzaile gehiago daudela A eredu publikoan, maila sozio-ekonomiko apalean eta ertain-apalean, etorkinen artean eta familiaren hizkuntza gaztelania dutenetan (ikasle gehienak ebaluazio honetan), baina ia ez dago alderik ikasleek sexua kontuan hartuz gero. Gogoan izan, gainera, aldagai honen eragina handienetakoa dela probetako emaitzen bariantza azaltzeko orduan.

Eskola-porrotari erantzuteko errepikatzea eraginkorra ote den zalantzan jarri dute PISA bezalako ebaluazioek, eta, hain zuzen ere, lehen azterketa batean, badirudi ikasmila errepikatzeak ez duela balio emaitzak hobetzeko ez ikas-kuntza berreskuratzeko ere, eta, gainera, gehienetan betirako markatzen du ikaslea. Bestalde, errepikatzeak irizpideak ez dira berdinak ikastetxe guztietan: izan ere, ebaluazio honetan antzeko emaitza izan duten ikasleek egoera desberdinean daude errepikatzeari dagokionez, eskolatuta dauden ikastetxearen arabera.

Hala eta guztiz ere, ez dakigu zer pasatuko zen ikasle horiek errepikatu ez balute, eta, beraz, ezin dugu ondorio argirik atera neurri horrek eskola-porrotaren aurrean duen balioaz, eta, horregatik, eraginkorra ote den aztertu beharko litzateke, bai eta erabakia hartzeko zein ezaugarri eta baldintza kontuan hartzen diren ere.

Gomendioak:

- *Ikertu beharko litzateke zein irizpideri jarraituz errepikarazten den ikastetxeetan.*
- *Aniztasunari arreta emateko beste estrategia batzuk sustatu, hain muturreko neurria eta hain ondorio negatiboak dituena hartu aurretik.*

(14) Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikoaren datuen arabera, etaparen bukaeran aurrera egiten ez duten ikasleek ehuneko baina handiagoa den arren datu hau, kontuan izan behar da kasu honetan Lehen Hezkuntza guztian errepikatzeaz ari garela, eta, horregatik, bali-teke errepikatzaileak gehiago izatea etapa bukatu ez dutenak baino, erabaki hori garrantzi handikoa baita.

3.5. Ikasleen artean giro positiboa egotea errendimendu egokirako aurre-baldintza izan daiteke, ikasleen artean jokabide gatazkatsuak egoteak –irainak edo erasoak– eragin negatiboa baitu emaitzetan.

Beste ebaluazio eta ikerketetan bezala, ebaluazio honetan ere eskolako giroarekin lotutako alderdiek eta ikasleen arteko jokabide gatazkatsuek harreman negatiboa izan dezakete emaitzetan.

Eskolako ikaskideen artean beldurra pasaraztea edota tratu txarrak egoteak azaltzen dute, hein txiki batean, arlo guztietan dagoen bariantza, eta, gainera, hori jasaten dutenek esanguratsuki emaitza apalagoak dituzte arlo guztietan, ez hainbestekoak Euskaran.

Gatazka horiek sarriago gertatzen dira mutilen artean nesken artean baino, D ereduko bi sareetan, eta, batez ere, errepikatzaileen artean; ikasleen indize sozio-ekonomikoa kontuan hartuz gero, ez dago alderik.

Zalantzarik gabe, alderdi horri buruz ebaluazio honetan jasotako informazioa ez da aski baieztapen biribilak egiteko, baina adierazle interesgarria izan daiteke eta kontuan izan beharreko funtsezko datua bai ikastetxeetan bai hurrengo ebaluazioetan.

Gomendioak:

- *Ikaskideen arteko jazarpen-jokabide horiek desagerrarazteko neurriak eta ekimenak ugaritzea komeni da (ikasleak kontzientziatzeko kanpainak...).*
- *Tutoretzako materialak eta proposamenak lantzea edo erabiltzea sustatu, taldeko eta ikastetxeko bizikidetzak hobetzeko.*
- *Prestakuntza espezifikoa ikaskideen arteko gatazkak konpontzeko eta taldeko funtzionamendu- eta jokabide-erakundeak planifikatzeko, tutoretzaren bitartez*

3.6. 3 urterekin edo lehenago eskolara hasteak geroko eskola-errendimenduan eragin positiboa duela dirudi.

Lagineko ikasle gehienak (%95) hiru urterekin edo lehenago eskolara hasi arren, egindako azterketek diotenez, hiru urteren ondoren hasi ziren gutxi horiek emaitza baxuagoak dituzte arlo guztietan.

Baieztapen sendoagoak egiteko, beharrezkoa izango litzateke ikasle gehiago izatea eskolara goiz hasi ez direnak, eta, batez ere, luzetarako azterketak egitea. Hala ere, datu hori agertzen da beste proba batzuetan ere -PISAn (15 urte), TIMS-Sen (DBHko 2.ean) eta PIRLSen (Lehen Hezkuntzako 4.ean)- eta horietan ikusten denez, eskolara goiz hasteak badu eragin positiboren bat geroko errendimenduan.

Gomendioa:

- *Euskal ikasle ia denak hiru urterekin edo lehenago hasten direnez eskolara, arreta berezia eskaini behar litzaike eskolara goiz hasierik izan ez dutenei -gure sistemari berandu sartu direlako edo dituzten familiako eta gizarteko egoera jakinek eskolatzea oztopatu dutelako-, batez ere ingurune sozio-ekonomiko kaltetuetatik datozenean.*

3.7. Oro har, ikasleek jarrera onez hartzen dute elebitasuna eta eleaniztasuna, baina zenbait hizkuntza-eredutan komeni da jarrera hori hizkuntza guztietara zabaltzen ahale-gintzea.

Ikasleen erantzunetan agertzen denez, gehienek uste dute euskara zein gaztelania direla oso garrantzitsuak eta biak ikasi behar dituztela. Ideia horren aldeko jarrera argiena D ereduko ikasleek dute (%98), baina A ereduko ikasleen %21 ez dago ados baieztapen horrekin.

Aurreko ideia horrekin batera, ikasleen gehiengoak dioenez, euskara eta gaztelania elkarrekin bizi daitezke, nahiz eta iritzi horren aldekoak gutxiago diren D ereduan (%21 ez dago ados), eta gehiengoak hala uste duen A ereduan (%93,3).

Bukatzeko, ikasle gehienak ados daude hirugarren hizkuntza bat ikastearekin. Kasu honetan, B eta D ereduko ikasleak dira adostasun handiena dutenak; aldiz, A ereduan handiagoa da desadostasuna: A eredu publikoan, %24 dira.

Ez da ahaztu behar hizkuntzekiko jarrerak garrantzi handia duela haien ikaskuntzan (horrela erakusten digute beste ebaluazio eta ikerketa batzuek). Horregatik ditu gaur egungo curriculumak jarrerak lantzeko edukiak —batik bat hizkuntza guztiekiko jarrera irekia eta errespetuzkoa izateak— eta horiek ikasgeletan lantzea proposatzen da.

Gomendioak:

- *Aurreko emaitzak ikusita, eta ikasleen iritziak hizkuntzekiko oro har positiboak izan arren, hizkuntzekiko jarrera positiboak lantzen jarraitu behar da, batez ere Euskadikoa bezalako hezkuntza-sisteman, non ezaugarri nagusien artean dagoen hizkuntzak ikastea.*
- *Bestalde, komeni da hizkuntzekiko jarrerak lantzea: A ereduko ikasleen artean elebitasuna eta eleaniztasuna onartzea eta aintzat hartzea, eta D ereduko ikasleen artean gaztelaniaren eta euskararen arteko bizikidetzeta eta errespetua.*

3.8. Guraso bakarreko familiei eta nuklearrak ez diren beste familia-motei laguntza handiagoa emateak eragin positiboa izan lezake emaitza akademikoetan.

Lagineko ikasleen %15 ingururen familietan guraso bakarra dago edo nuklearra ez den beste egitura bat, eta ikasle horiek, arlo guztietan, emaitza apalagoak dituzte egitura nuklearreko edo nuklear zabalduko familietako ikasleek baino. Beste ebaluazio batzuek ere —adibidez, 2000ko eta 2003ko PISAk— ondorioztatu dute familia faktore sozio-ekonomiko garrantzitsua dela hezkuntzan.

Familia-egituren banaketa oso desberdina da: adibidez, maila sozio-ekonomiko altua edo apala den, ikaslea errepikatzailea den, ikasle etorkina den edo A eredu publikoan dabilen (gainerako geruzetan baino %10 familia ez-nuklear gehiago daude). Kasu guzti horiek azaltzeko, esan daiteke guraso bakarreko familiek baliabide gutxiago dituztela eta denbora gutxiago seme-alabei laguntzeko, eta horrek eragina du ikasleen eskolako martxan.

Gomendioa:

- *Hezkuntza-sistemak eta ikastetxeek laguntza espezifiko eman behar diote ikasle-mota horri, eskolan berak edo bere familiak izan ditzaketen zailtasunak eta premiak osatzeko. Irakasle-taldeek gero eta argiago izan behar dute ikasle horiek izan ditzaketen arazoei batzuetan familiarekin batera egin behar zaiela aurre, bai eta ikasketak jarraitzeko laguntzak eskaini ere.*

3.9. Ebaluazio honetako ikasle etorkinen ezaugarriek argi utzi dute laguntza berezia behar dutela, bai eta beren egoeretara eta ikaskuntza-premietara egokitutako tratamendua ere.

Ikasle etorkinen zati handi batek ezin izan du probetan parte hartu ebaluazio honetarako eskatzen ziren baldintzak betetzen ez dituztelako: hizkuntzarengatik edo gure Erkidegoan ez daramatelako behar hainbat denbora. Hori dela eta, soilik 51 dira etorkinak —laginaren %2,4 baino ez—, eta, azterketan horrelako ikasleak kontuan hartu badira ere, ezin izan da ondorio erabat adierazgarririk atera.

Dena dela, lortutako lagin horretan, ikasle horien ezaugarri batzuk kontuan hartu behar lirateke: A ereduan biltzen dira, sare publikoan bereziki, eta ia ez dago batere D ereduan; batez ere, maila sozio-ekonomiko eta kultural apalekoak eta ertain-apalekoak dira, eta guraso bakarreko familien portzentaje handiagoa da talde horretan eta baita lehen mailako ikasketak baino ez dituzten familiak ere. Hau da, ikasle horiek, familiako zailtasunaz gain, maila sozio-ekonomiko eta kultural apaleko eskoletara joan ohi da. Dena dela, familiek ikasleengan itxaropen handiak dituzte, edo hori oso lagungarria da eta ikasle horien emaitzak hobetzeko oinarri ona.

Azkenik, ikasketa-burutzako erantzunen arabera, ikastetxe gehienek ahalegina egiten dute ikasle etorkinentzako harrera hobetzen: familiekin harremanak landuz, taldean lan eginez eta egokitzeko prozesua zainduz. Ohikoena hizkuntza-laguntzaile baten bitartez taldean sartzea da —sistematikoki edo egokitzeko tarte batekin—, baina oso gutxitan egiten da ahalegina beren jatorriko kulturei buruzko edukiak txertatzen edo eskola osagarrien bidez beren ama-hizkuntza hobetzen.

Gomendioak:

- *Mota honetako ikasleak integratzeko programak sustatzen jarraitzea.*
- *B eta D ereduen eskaintza etorkinen artean bultzatzea, euskal gizartean hobeto eta erabat integra daitezen.*
- *Ikasle guztiekin eta hezkuntza-komunitate osoarekin lantzea gizarte-aniztasuna.*
- *Familiek dituzten espektatiba handiak erabili behar dira, ikasleen ikaskuntza bultzatzeko.*

3.10. Familiak bere seme-alaben ikaskuntzan erakusten duen interesak (espektatibak, ikasketen jarraipena eta ikastetxearekin gustura egotea) emaitzetan nolabaiteko eragin positiboa duela dirudi.

Familiak du ardura nagusia, ikastetxearekin batera, ikasleek hezkuntza-garapen egokia izan dezaten: seme-alaben eskola-garapenean baliabide sozio-ekonomiko eta kulturalen bidez eragiteaz gain, zeresan handia du ikasleen eskola-eta hezkuntza-garapenean, horretan laguntzeko eta jarraipena egiteko. Gainera, hasierako etapetan, ezinbestekoa da euskarri- eta sustatzaile-funtzio hau.

Illo horretatik, familiek beren seme-alaben ikasketei buruz emandako erantzunetan agertzen diren zenbait aldagai familiako hainbat jarduerarekin eta jokabiderekin lotuta daude, eta ikasleen eskola-garapenean eragin ona izan dezaketela ikusi da. Aldagai horiek banaka aztertu dira, beren artean korrelaziorik bilatu gabe. Horregatik, ondorio honetan batera ageri badira ere, ezin izan da egiaztatu batera dihardutenik. Hala eta guztiz ere, badirudi denek dutela lotura onen bat emaitzekin.

Egindako azterketetan ikusten denez, bada aldagai bat harreman on nabaria duena emaitzekin: *familien espektatibak* seme-alaben ikasketetan. Ia arlo guztietan, zenbat eta espektatiba handiagoa izan, orduan eta emaitza hobek. Jakina, ez dakigu aldagai hori eskola-emaitzen eragile edo ondorio den, baina pentsa daiteke etapa honetan ikaslearen eskola-garapenak eragin txikiagoa duela espektatibetan, hurrengo etapetan baino.

Beste aldagai bat seme-alabaren *ikasketen jarraipena* da: desberdintasunak daude jarraipena bi gurasoek batera egin edo bakoitzak bere aldetik egiten denean (azken kasu horretan, emaitzak nabarmen apalagoak dira).

Ikastetxeaz eta bere funtzionamenduaz gurasoek jasotzen duten informazioarekin eta harremanekin duten *gogobetetasuna* dela eta, muturreko erantzunak jaso dira: familia batzuk oso pozik daude beren ikastetxearekin, eta beste batzuk batere ez. Bi iritzi-talde horien seme-alaben artean desberdintasunak daude, estatistikoki esanguratsuak, bost arlotako hirutan: emaitza hobek dituzte ikastetxearekin pozik dauden familietako seme-alabek.

Gomendioa:

- *Badirudi neurriak hartzea komeni dela, familien eta ikastetxeen ordutegiak bateratzeko.*

GERUZEN EZAUGARRIEN ETA
EMAITZEN DESKRIBAPENA

4

4. GERUZEN EZAUGARRIEN ETA EMAITZEN DESKRIBAPENA


Hezkuntza-sarea eta hizkuntza-eredua gurutzatuz egin dugun ebaluazioan sei geruza kontuan hartu ditugu. Ikus ditzagun geruza horien ezaugarriak eta emaitzak, bi ataletan:

a) **Geruza bakoitzaren ezaugarriak**, lagina eta ondorioak kontuan hartuz, hainbat aldagai eta faktore aztertu ondoren.

Geruza bakoitzaren sakabanaketa-grafikoak -14. grafikoaren antzekoak- harremanean jartzen du ikastetxearen maila sozio-ekonomiko eta kulturala (ardatz horizontala) eta IET puntuazioa Matematikan¹⁵14 (ardatz bertikala). Grafikoan ikus daiteke ebaluazio honetako 111 ikastetxeen kokapena bi aldagaiak gurutzatu ondoren, eta baita lerro eten batzuk ere, alegia Matematikaren batezbesteko IET eta batezbesteko indize sozio-ekonomiko eta kulturala. Grafiko guztietan ageri den lerro diagonal lagin osoari dagokio, bi aldagaien arteko harremana adierazten du, eta esaten digu ea ikastetxe bat berari dagokion puntutik gora edo behera dagoen, bere ezaugarri sozio-ekonomiko eta kulturalen arabera.

Errazago irakurri ahal izateko, geruza bakoitza deskribatzeko orduan agertzen da ikastetxeetako emaitzen sakabanaketa-grafikoa, eta ikastetxeak biribil batekin markatzen dira, beren sakabanaketa eta kokapena aztertu ahal izateko.

14. grafikoa. Indize sozio-ekonomikoaren eta Matematikako emaitzaren arteko harremana



b) 1999ko eta 2004ko ebaluazioen **emaitzak aztertzea eta konparatzea**, desberdintasun esanguratsuak azpimarratuz.

Kontuan izan: geruza bakoitzari buruzko ezaugarri guztiak ebaluazio honetako laginari dagozkio, eta ez populazio osoari.


(15) Matematika erabiltzearen arrazoia: egindako azterketen arabera, arlo horretako emaitzek korrelazio handiagoa dute gainerakoetako emaitzekin eta, arlo hori hizkuntzatakoea ez denez, ez du kutsatzen hizkuntza-ereduak edo familiako hizkuntzak.

4.1. A EREDU PUBLIKOA

Ezaugarriak (aztertutako laginaren eta aldagaien arabera)

Ebaluazio honetan parte hartu duten A eredu publikoko ikastetxeak laginaren %18,9 dira. Laginaren batezbestekoa kontuan hartuz, neskek baino gehixeago dira mutilak; hemen biltzen da probetan parte hartu duten etorkinen ia erdia; ikasle ia guztien familia mintzo da erdaraz; geruza honetan dago errepikatzaile-maila handiena (%22,0); erdia baino gehiago (%51,4) indize sozio-ekonomiko eta kultural apala duten familiakoak dira, eta indize horren goi mailan ikasle gutxien dituen geruza da (%6,3 besterik ez).

15. grafikoa. A eredu publikoa




Geruza honetan dago sakabanaketarik handiena ikastetxeen artean: batek puntuaziorik onena du Matematikan, baina eskola asko emaitzarik txarrenak ateratzen dituzte, 15. grafikoa ageri den bezala. Geruza guztien artean, hemengo honetan da nabariena emaitzen eta indize sozio-ekonomiko eta kulturalaren arteko harremana. Aldagai hori kontrolatzen duten emaitzak 54. orrian daude.

Ebaluazio honen beste alderdi batzuk aintzat hartuz, A eredu publikoa da aitak eta amak batera jarraipen gutxien egiten dutena: beste geruzen aldean ia erdia.

Emaitzen azterketa eta konparazioa

2004ko ebaluazioan, gainerako geruzekin konparatuz gero emaitzarik baxuenak ateratzen dituzte proba guztietan, gehienetan diferentziak esanguratsuak izan dira. Bestalde, 1999an eta 2004an ebaluatutako arloetan emaitzak apalagoak diren arren, aldea ez da esanguratsua, lagina txikiagoa baita beste geruzetan baino.

16. grafikoa. A eredu publikoa: 1999 eta 2004ko emaitzak




4.2. B EREDU PUBLIKOA

Ezaugarriak (aztertutako laginaren eta aldagaien arabera)

Ebaluazio honetan parte hartu duten B eredu publikoko ikastetxeak laginaren %16,2 dira. Sexuak orekatu samar daude, baina mutilak baino gehixeago dira neskak; ia ez dago etorkinik; ikasle ia guztien familia mintzo da erdaraz; batez beste baino errepikatzailer gehiago daude (%22,0); indize sozio-ekonomiko eta kultural nagusia apala da (%36,6), eta, gainera, maila sozio-ekonomiko eta kultural horrek gora egin ahala ikasle gutxiago daude.

Ikastetxearen maila sozio-ekonomiko eta kulturalak eragin handia du, eta, A eredu publikoan gertatzen den bezalaxe, sakabanaketa handia dago: ikastetxe batzuek emaitza onak eta beste batzuek oso txarrak dituzte, 17. grafikoa ageri den bezala. Aldagai hori kontrolatzen duten emaitzak azaltzen dira 54. orrian.

17. grafikoa. B eredu publikoa




Azkenik, familien %60k dioenez, aitak eta amak batera egiten diote ikasketen jarraipena semeari edo alabari.

Emaitzen azterketa eta konparazioa

2004ko ebaluazioaren emaitzak, gainerako geruzekin konparatuz gero, orekatuak dira: proba gehienetan arlo bakoitzaren batezbestekotik hurbil, 18. grafikoan ageri den moduan.

18. grafikoa. B eredu publikoa: 1999 eta 2004ko emaitzak



Aipagarria da geruza publiko bakarra izatea 1999ko emaitzak hobetu dituen. Dena dela, alde hori Matematikan bakarrik da esanguratsua: 2004an nabarmen hobetu ditu 1999ko emaitzak. Bi aldietan ebaluatutako beste bi arloetan —Ingurunearen Ezagutzan eta Gaztelanian— aldea ez da estatistikoki esanguratsua.


4.3. D EREDU PUBLIKOA

Ezaugarriak (aztertutako laginaren eta aldagaien arabera)

Ebaluazio honetan parte hartu duten D eredu publikoko ikastetxeak laginaren %19,8 dira. Sexuak orekatu samar daude, baina mutilak baino gehixeago dira neskek; ia ez dago etorkinik; ikasle guztien erdia baino gehixeago euskaraz mintzo da familiarekin; batez beste baino errepikatzaile gutxiago daude; bukatzeko, geruza honetako ikasleen familiak lau maila sozio-ekonomikoko eta kulturalakoak dira, kopuru bereko multzotan.

Ikastetxearen indize sozio-ekonomiko eta kulturalak beste geruza publikoetan baino eragin txikiagoa du, eta ikastetxeak erregresio-zuzenaren inguruan bildu ohi dira (ikus 19. grafikoa), nahiz eta gehienak diagonaletik behera egon: horrek esan nahi du beren maila sozio-ekonomiko eta kulturalari ustez dagokion emaitza baino apalagoa atera dutela. Aldagai hori kontrolatzen duten emaitzak 54. orrian daude. Gogoan izan geruza honi asko eragiten diola proban erabili den hizkuntzak, ikasle asko samarregan ez baitatoz bat probaren hizkuntza eta familiaren hizkuntza

19. grafikoa. D eredu publikoa




Geruza honetako familien %60 inguruk dioenez, aitek eta amak batera egiten diote ikasketen jarraipena semeari edo alabari. Gainera, familia hauek beste geruzetakoak baino gusturago daude oro har eskolatik jasotzen duten informazioarekin eta funtzionatzen duen moduarekin.

Emaitzen azterketa eta konparazioa

2004ko ebaluazioan zerikusi zuzena izan du proban erabili den hizkuntzak, emaitzak irregularrak baitira: hiru arloren puntuazioa batezbestekotik behera dago, eta beste bitan —euskal curriculumarekin zerikusi gehien dutenetan— batezbestekotik gora, 20. grafikoa ageri den moduan.

20. grafikoa. D eredu publikoa 1999 eta 2004ko emaitzak




Bestalde, Matematikan eta curriculum komuneko Ingurunearen Ezagutzan 2004an izandako puntuazioa 1999koaren ia berdina da, baina Gaztelaniakoa 5,3 puntu hobetu da. Nolanahi ere alde horiek ez dira esanguratsuak, eta, beraz, geruza honek lehengo maileri eutsi die.

4.4. A EREDU ITUNPEKOA

Ezaugarriak (aztertutako laginaren eta aldagaien arabera)

Ebaluazioan parte hartu duten A eredu itundutako ikastetxeak laginaren %14,4 dira. Nesken ehuneko handiena duen geruza da; hemen biltzen da probetan parte hartu duten etorkinen herena edo; ikasle ia guztien familia mintzo da erdaraz; proban parte hartu duten ikastetxeen artean, hemengo errepikatzaile-kopurua batezbestekoa baino goraxeago dago; eta, azkenik, ikasleak era orekatuan daude banaturik lau maila sozio-ekonomiko eta kulturaletan.

21. grafikoa. A eredu itunpekoa



Sare publikoko eredu berdinarekin gertatzen den moduan, indize sozio-ekonomiko eta kulturalak eragin handia du, ikusten den bezala 21. grafikoa. Nolanahi ere, geruza honetako ikastetxe gehienak oso kontzentratuak daude eta beren maila sozio-ekonomiko eta kulturala Erkidegoaren batez bestekotik gora dago. Gainera, ikastetxe gehienak diagonaletik gora daude, eta, beraz, mailaren arabera ustez izan behar lituzketenak baino emaitza hobeak dituzte batzuetan. Aldagai hori kontrolatuz ateratzen diren emaitzak 54. orrian daude.


Geruza honetako familien %60 inguruk dioenez, aita eta ama batera egiten diote ikasketen jarraipena semeari edo alabari. Azkenik, geruza honetako familiak dira poztasun txikiena dutena ikastetxearen informazioarekin eta funtzio-namendurekin.

Emaizen azterketa eta konparazioa

2004ko ebaluazioan, emaitzak bi ataletan bereiz daitezke: lau arloetan batezbestekotik gora daude (curriculum komune-ko Ingurunearen Ezagutzan 10 puntu baino gorago), baina Euskararen emaitzak oso baxuak dira.

Bestalde, A eredu publikoan bezala, 2004ko emaitzak 1999koak baino okerragoak dira. Gainera, hauxe da geruza bakarra curriculum komune-ko Ingurunearen Ezagutzan nabarmen okertu dena; aldiz, Gaztelanian eta Matematikan ez dago alde esanguratsurik.

22. grafikoa. A eredu itunpekoa: 1999 eta 2004ko emaitzak



4.5. B EREDU ITUNPEKOA


Ezaugarriak (aztertutako laginaren eta aldagaien arabera)

Ebaluazio honetan parte hartu duten B eredu kontzertatuko ikastetxeak laginaren %13,5 dira. Mutilak gehixeago dira; ia ez dago etorkinik; ikasle gehien-gehienak (%89) erdaraz mintzo dira familiarekin; batez beste baino nabarmen errepikatzaile gutxiago daude; bukatzeko, ikasleak lau maila sozio-ekonomikoko eta kulturaletan daude banaturik, era orekatuan.

Ikastetxearen indize sozio-ekonomiko eta kulturalak eragin txikiagoa du geruza gehienetan baino, D ereduko ikastetxeetan izan ezik; 23. grafikoa ageri den moduan, asko biltzen dira diagonalaren inguruan (ez dago ikastetxerik oso aparte), eta, kasu guztietan, Erkidegoko maila sozio-ekonomikoaren batezbestekotik gora daude. Aldagai hori kontrolatzen duten emaitzak 54. orrian daude.

Geruza honetako familien %60 inguruk dioenez, aitak eta amak batera egiten diote ikasketen jarraipena semeari edo alabari.


23. grafikoa. B eredu itunpekoa

*Emaitzen azterketa eta konparazioa*

Oro har, 2004ko emaitzak onak dira, euskal curriculumeko Ingurunearen Ezagutzan izan ezik: proba bakoitzaren batezbestekotik gora, eta emaitzak orekatu samarrak.

1999an eta 2004an ebaluatutako bi arloen emaitzak dezentez hobekak dira eta Ingurunearen Ezagutzaren curriculum komuneko emaitzak 2004an apalagoak dira, baina alde horiek ez dira esanguratsuak.

24. grafikoa. B eredu itunpekoa 1999 eta 2004ko emaitzak




4.6. D EREDU ITUNPEKOA

Ezaugarriak (aztertutako laginaren eta aldagaien arabera)

Ebaluazio honetan parte hartu duten D eredu kontzertatuko ikastetxeak laginaren %17,1 dira. Mutilak gehixeago dira; etorkin gutxi daude; erdia baino gehixeago euskaraz mintzo da familiarekin; batez beste baino errepikatzaile gutxiago daude; maila sozio-ekonomiko eta kultural altuko ikasle gehien ditu (%35,1) eta maila apaleko gutxien (%14,7).

Ikastetxearen indize sozio-ekonomiko eta kulturalak eragin askoz txikiagoa du beste geruzetan baino, desberdintasun txikia baitago ikastetxeen artean; gainera, diagonaletik ikastetxe gutxien sakabanatzen den geruza da. Egoera on hori gorabehera, ikastetxe asko diagonaletik behera daude, 25. grafikoan ikusten den moduan, eta, beraz, bere maila sozio-ekonomiko eta kulturalaren arabera ustez izan behar lituzkeenak baino emaitza apalagoak ditu. Aldagai hori kontrolatzen duten emaitzak 54. orrian daude.

25. grafikoa. D eredu itunpekoa




Geruza honetako familien %60 inguruk dioenez, aitak eta amak batera egiten diote ikasketen jarraipena semeari edo alabari.

Emaitzen azterketa eta konparazioa

2004ko ebaluazioan emaitza onenak dituen geruza da: proba guztietan gainditzen du batezbestekoa, batzuetan hamar puntu baino gehiago.

Bestalde, geruza honek bakarrik hobetu ditu 1999ko eta 2004ko arlo guztiak: adibidez, Matematikan lortutako emaitza 9 puntu hobe da 1999an baino.

26. grafikoa. D eredu itunpekoa: 1999 eta 2004ko emaitzak



ERANSKINA

Euskara arloko gaitasun mailak. Kaslea gai da...

150 maila	200 maila	250 maila	300 maila	350 maila
<p>Irakurmena</p> <ul style="list-style-type: none"> Testuaren forma kontuan izanik, testu ikoniko baten (planoa) testu mota igartzeko. Testuaren forma kontuan izanik, testu literario baten (narrazioa) egitura edo testuaren atalak zuzen antolatzeke. Testu ikoniko batean (planoa) eskatutako informazio zehatza (helbide bat) hautatzeko. Komunikabideetako testu batean (elkarriketa) eskatutako informazio zehatza topatzeko eta interpretatzeko. Testu ikoniko batean (iragarria) eskatutako datu zehatz bat bilatzeaz gain, horren gaineko interpretazioa egiteko. 	<p>Irakurmena</p> <ul style="list-style-type: none"> Komunikabideetako elkarriketa baten testu mota hori antzemateko. Testu literario baten forman ariuz, ezaugarri formal bat (hitz baten errepikapenaren adierazia) interpretatzeko. Testu ikoniko batean (planoa) eskatutako informazio zehatza topatzeko (helbide bat), emandako instrukzioak interpretatuz. Instrukziozko testu batean (errezeta) informazioa interpretatu eta dituen ondorioak antzemateko. Testu ikoniko bat (landetxe orria) ulertu bere osotasunean eta eskaintzen duen informazio zehatzak interpretatzeko. Azalpenzko testu baten forma igarri eta zein motatakoa den esateko. <p>Entzumena</p> <ul style="list-style-type: none"> Ahozko testu bat entzunda, atal baten informazioaren gainean hausnarketa egiteko, horren helburua antzemateko. Pelikula baten pasarte batean, datu zehatz bat ulertzeko eta interpretatzeko. Bi galderetan, ahozko azalpenzko testu batean, datu zehatz bat topatzeko. 	<p>Irakurmena</p> <ul style="list-style-type: none"> Albiste baten informazio zehatza ulertu eta horien gainean ondorioak ateratzeko, datu zehatz bat jakiteko. Testu literario bat osotasunean ulertzeko, testuaren jasotzailea nor den antzemateko. Testu literario baten forman arreta jartziz, hitz baten izartxo eramatearen zergatia jakiteko. Testu literario batean agertzen ez den informazioa igartzeko, alde aurretik testuaren datuak ulertu eta interpretatuz. Testuaren forma ezagutzuz, iragarri baten testu mota jakiteko. Iragarki bat oro har ulertu eta bere helburu orokorra ezagutzeko. <p>Entzumena</p> <ul style="list-style-type: none"> Ulermen orokorraz ballatuz, azalpenzko ahozko testu baten ideia orokorrak antzemateko. <p>Hizkuntza ezagutza</p> <ul style="list-style-type: none"> Hitza mailan, aditzak, bai orain aldikoak bai lehen aldikoak, zuzen kokatzeko dagokion hutsunean. Hiztegi mailan, esamolde baten esanahia ezagutzeko. Hitza mailan, esaldi baten hutsune bat betetzeko lokailu batez. Hitza mailan, hitz bati dagokion atzizkia jartzeko. Sintaxi mailan, estilo zuzenean dagoen esaldi bat estilo ez-zuzenean ipintzeko. 	<p>Irakurmena</p> <ul style="list-style-type: none"> Testu literario baten forma aztertuz, egitura edo testuaren atalak antzemateko. Testu literario baten testu mota antzemateko, agertzen den esaldi baten informazioaz ballatuz. Albiste baten gaia esaldi batean laburtuta antzemateko. Testu ikoniko baten sinboloa ulertu eta interpretatzeko, informazioa ondorioztatzeke. Testu ikoniko batean sinbolo guztiak interpretatzeaz gain, agertzen ez den informazioa ere antzemateko. Azalpenzko testu batean, datuak ulertu eta interpretatuz, datu zehatz bat ondorioztatzeke. <p>Hizkuntza ezagutza</p> <ul style="list-style-type: none"> Hitza mailan, lokailu zuzenak kokatzeko dagokien hutsunetan. <p>Idazmena</p> <ul style="list-style-type: none"> Testu labor baten amaiera zuzena hautatzeko. 	<p>Irakurmena</p> <ul style="list-style-type: none"> Testu bat (errezeta) ulertu eta duen helburua antzemateko. Azalpenzko testu batean agertzen den informazioaz ballatuz, datu zehatz bat ondorioztatzeke. <p>Hizkuntza ezagutza</p> <ul style="list-style-type: none"> Hitza mailan, semantika arloan, definizio baterako hitza egokia hautatzeko.

150 maila	200 maila	250 maila	300 maila	350 maila
	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ahozko azalpenezko testu bat oro har ulertu eta bere helburua antzemateko. <p>Hizkuntza ezaguitza</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Sintaxia atalean, emandako hitzez esaldi bat osatzeko. ▪ Esamolde arrunt baten esanahia ezagutzeko: "tipi-tapa". <p>Idazmenean</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Kohesioa alorrean, aditza eta lokailuz osatutako hitza, testu batean egoki kokatzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Hiztegi sailean, hitz baten esangura jakiteko. ▪ Semantika arloan, oso arrunta ez den esaera zahar baten esanahia jakiteko. ▪ Testu mailan, emandako esaldiak antolatu testu koherente bat osatzeko. <p>Idazmena</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Kohesioa mailan, testu baten bi esaldi lotzeko behar den lokailua kokatzeko. ▪ Koherentzia mailan, hasitako testu bati (gutuna) jarraipena emateko. ▪ Koherentzia mailan, hasitako testu bati (gutuna) amaiera emateko. ▪ Koherentzia mailan, testu baten (elkarrizketa) hutsune bat lotura egokiarekin osatzeko. ▪ Koherentzia mailan, testu baten (elkarrizketa) hutsune baterako aditzaren denbora egokia hautatzeko. ▪ Koherentzia mailan, azalpenezko testu batean behar den hitz egokia hautatzeko. 		

Gaztelaniako gaitasun mailak. Ikaslea gai da:

150 maila	200 maila	250 maila	300 maila	350 maila
<ul style="list-style-type: none"> • Testu berbo-ikonikoen informazioa berrantolatze (komikia). Bigarren mailan dauden ideiak ondorioztatze, testu berbo-ikonikoetako pertsonaiei buruz (binetak). Testu berbo-ikonikoetan (komiki eta bineta) erlazio logikoak (aukerak) zehazteko • Hitzeako eta ez hitzeako elementuen artean erlazioak sortzeko testu berbo-ikonikoetan. Testu informatiboan irizpide egokiena adierazteko (arauak). • Testu informatiboan buruz iritzia emateko (instruzioak). Testu berbo-ikonikoetan harreman logikoen ondorioak ateratzeko (binetak). Testu mota desberdinak ezagutzeko. • Hitzun baten esaldiaren asmo komunikatiboa interpretatzeko. • Sarri erabiltzen ez diren hitzen esanahia jakiteko. • Familia lexiko berekoak ez diren hitzak ezagutzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> • Literatur testu narratibo baten bigarren mailako ideiak ezagutzeko. • Testu informatiboan ideiak eta mezua berrantolatze (instruzioak) • Literatur testu narratibo bateko pertsonaien arrazoi psikologikoen harreman logikoak finkatzeko • Testuko irizpiderik egokiena adierazteko. Testu informatiboan (instruzioak) asmoa antzemateko. Elkarriketa idatzi baten markak ezagutzeko Esaldi baten puntuazioa egoki aukeratzeko. • Perpausak ordenatuz zentzua duen testu bat osatzeko • Substantibo bat adjektibo egokiarekin lotzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> • Testuan zehaztu gabeko pertsonaien ezaugarriak ondorioztatze. • Literatur testu baten edukia hitzez hitz ulertzeko (deskribaketa). • Mapa sinpleak interpretatzeko, lekuak identifikatuz. • Antzerki-testu bateko pertsonaien izaera ondorioztatze. • Testuan ez datozen xehetasunak ondorioztatze. • Literatur testu narratiboan buruz iritziak emateko (bakarrizketa). 	<ul style="list-style-type: none"> • Hitzeako eta ez hitzeako osagaiak erlazioztatze, testu berbo-ikonikoetan. • Esamolde ezagunen esanahia jakiteko • Hedabideetako testu informatiboan hitzez hitzeko esanahia ulertzeko. • Literatur testuen esleikaz oharrezko. • Testuan zehaztu gabeko ezaugarriak ondorioztatze. 	<ul style="list-style-type: none"> • Adjektiboari maila egokia ematen jakiteko. • Literatur testu narratibo batean lehen eta bigarren mailako ideiak bereizteko (deskripzioa). Testu berbo-ikonikoen mezua oharrezko (iragarria). • Balio-judizioak egiteko literatur testuek (elkarriketa) eta berbo-ikonikoen (iragarria) diotenaz. • Testu berbo-ikonikoen interpretatzeko (mapa). • Kausa-efektu harremanak finkatzeko literatur testu narratiboetan (elkarriketa). • Hedabideetako testu informatiboan ideiak berregiteko (albigitea). • Literatur testu baten egitura ezagutzeko.

Matematikako gaitasun mailak. Ikaslea gai da:


150 maila	200 maila	250 maila	300 maila	350 maila
<ul style="list-style-type: none"> Luzeraren neurri-unitateak ezagutzeko, eta kasu bakoitzean neurri egokiarena aukeratzeko. Gertaera baten probabilitatea kalkulatzeko, eragiketa bakarra behar denean. Zatiki daten adierazpen grafikoa ezagutzeko Batuketa eta biderketa bat baino gehiagoko problemak ebazteko. Hizkuntza grafiko-nerriko desberdineko adierazpen matematikoak ezagutzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> Magnitude bereko neurketa-unitateak kalkulatzeko eta eraldatzeko, eragiketa bakarra behar denean. Pisu-neurri arruntak ezagutzeko, interpretatzeko eta erabiltzeko. Magnitude bereko neurketa-unitateak (denbora) kalkulatzeko eta eraldatzeko, eragiketa bat baino gehiago behar denean. Eguneroko egoeren bi sarrerako taulak irakurtzeko eta interpretatzeko. Angelu lauak, zorrotzak eta kamutsak ezagutzeko eta identifikatzeko. Maketa bat irakurtzeko eta interpretatzeko, eskalari erabiliz. 	<ul style="list-style-type: none"> Zenbaki hamartarren lekunezko balioa jakiteko. Angelu zuzena erabiltzeko eguneroko bizitzan Edukiera-neurriko unitateak eraldatzeko eta kalkulu egokiak erabiltzeko Pisu-tresna arrunten neurria jakiteko eta interpretatzeko, bi neurri-unitateekin. Perimetroa erabiltzeko irudi lauen azterketan, eta baita neurketa-prozedura zuzenak ere. 	<ul style="list-style-type: none"> Geometria espazialeko problemak ebazteko, marrazki baten laguntzaz. Zatitzaile komunetako handiena ezagutzeko. Forma lauen simetria-ardatzak seinaltatzeko. Bolumenak konparatzeko eta neurri egokiak erabiltzeko Planoaren osagai geometrikoak identifikatzeko puntua, zuzena, bertikala, horizontala, angelu zuzena eta zorrotza. Magnitude desberdineko neurriak eraldatzeko. Denbora-neurrien artean baliokidetzak egiteko. Proporzionaltasuna zer den jakiteko. Hamartarrak dituen biderketa bat gutxi gorabehera kalkulatzeko. Bolumen-neurri desberdinak baliokidetzeko. Zatikien problemak ebazteko. Ehunekoen problemak ebazteko, grafikoen laguntzaz. 	

Inguruaren Ezaguerako gaitasun mailak (curriculum komuna). Ikaslea gai da:

150 maila	200 maila	250 maila	300 maila	350 maila
<ul style="list-style-type: none"> • Braille metodoaren helburua ondorioztatzeko. • Garrantziak eta bidalari-kopuruari buruzko informazio estatistikoa aztertzeko. • Zeta-harraren metamorfosiaren etapak ordenatzeko. • Ardatz kronologiko simple bat interpretatzeko. • Diagrama bateko fenomenoaren uraren zikloarekin erlazionatzeko. • Operadore baten mugimendua aurreikusteko, eskema baten azterketatik. • Pluviómetroaren helburua identifikatzeko. • Klima-zonak ordenatzeko, tenperaturen arabera. • Irudi batzuetatik gizakiaren garapena ondorioztatzeko. • Biztanleria aktiboaz informazioa ateratzeko, grafiko batetik. 	<ul style="list-style-type: none"> • Kate-ekoizpen baten ezaugarriak identifikatzeko. • Ekintza erreflexuak sailkatzeko. • Lurra esferikoa dela frogatzeko, behaketa arrunt batetik. • Mapa batean ezagutzeko eta kokatzeko espainiar estatutik hurbil dauden unitate politiko eta geografikoak. • Mapa batean identifikatzeko tren-ibilbide bateko hiriak iberiar penintsulan. 	<ul style="list-style-type: none"> • Eguzki-energiaren abantailak argudiatzeko, energia-iturri berriztagarria den heinean. • Espainiar Gorteen funtzio legegilea ezagutzeko. • Iberiar penintsulako klima-zona bat ezagutzeko, oinarriko ezaugarriak emanda • Erleek polinizazioaren bidez landareei egiten dieten onura aitortzeko. • Arnas sistemaren funtzionamendua azaltzeko. • Ibai baten zatiak identifikatzeko, eta beren funtzioarekin lotzeko higadura, garrailoa eta sedimentazioa. • Arkeologi iturri baten informazioa baloratzeko (zeramika grekoa). • Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren esanahia ulertzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> • Itsasotik hurbil egoteak tenperaturak gozaten dituela oharazteko. Gizakiaren irailtz-aparatuko organoak ondorioztatzeko, testu batetik. • Trafikoko arrisku-seinale baten esanahia identifikatzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> • Elektrizitate-sorgailu txikien izena jakiteko. • Motor elektrikoak eraldatzen duen energia mota identifikatzeko. • Testu bateko eritasun baten sintomak anorexiarekin lotzeko. • Arnas eritasunak hirietako eguratsaren kutsadurarekin lotzeko. • Semaforoako argi lanaren esanahia interpretatzeko. • Industria-iraultzaren asmakuntzak bereizteko.

Inguruaren Ezaguerako gaitasun mailak (euskal curriculumak). Ikaslea gai da:

150 maila	200 maila	250 maila	300 maila	350 maila
<ul style="list-style-type: none"> Euskal kirolak praktikatzeko orduan emakumeen berdintasuna baloratzeko. Hezkuntza neska eta mutil guztien eskubideetat hartzeko. Inguruko landare aruntan oinarritzko ezaugarriak zein diren jakiteko. Bizikletaz ibiltzeko arauak bete beharra autobabes-neurriekin lotzeko. Historian zehar erabilitako nekazaritza-teknikak eta -lanabesak sailkatzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> Produktu freskoak merkaturatzeari buruzko araudi baten asmoak interpretatzeko. Kartel batean sexuen arteko berdintasunaren aldeko mezua aurkitzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> Euskal Herriko basoetako animalia ezagun baten oinarritzko fitxa egiteko, testu batetik garrantzizko informazioa aukeratzu. Herri-kirolei buruzko informazio estatistikoak lurralde historikoekin lotzeko. Euskal musika-tresnak identifikatzeko eta sailkatzeko (txalaparta). 	<ul style="list-style-type: none"> Euskal Herriko klima-zonen mapa interpretatzeko. Euskal kostaldeko mapatik informazio garrantzitsua ateratzeko (lurralde historiko bakoitzeko portuak). Euskal Herriko komunikabide batzuk aipatzeko eta sailkatzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> Euskal kostaldearen aire-argazki batean paduren ekosistema bat identifikatzeko. Gorabehera geografiko garrantzitsuak beren lurralde historikoan kokatzeko. Hiri bateko klimaren oinarritzko datuak aztertzeko, eta Euskal Herriko mapan kokatzeko. Euskadiko lurralde historikoak eta inguruko probintziak eta autonomia-erkeidegoak mapa mutua batean kokatzeko. Iparraldeko hiru lurralde historikoak mapa mutua batean kokatzeko. Euskadiko arrantza-sektoreak bizi duen egoera ezagutzeko. Arrauna eta bera sortu zuen jarduera ekonomikoa lotzeko. Arrantza-portuetako zerbitzuak deskribatzeko. Arartekoaren zeregin nagusia identifikatzeko.



ISEI•IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSIATIA
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

ISEI•IVEI (Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea)

Asturias 9, 3º - 48015 Bilbao / Tel.: 94 476 06 04 / Fax: 94 476 37 84 / info@isei-ivei.net / www.isei-ivei.net